

HAUR  
LITERATURAREN  
INGURUAN

UEUren Literatura Saila

Iruña 1.992

© UEUren Literatura Saila

© Udako Euskal Unibertsitatea

General Concha 25, 6. 48010 BILBO

ISBN: 84-86967-51-1

Lege-gordailua: BI-2366-93

Inprimategia: BOAN S.A. Aita Larramendi 2, BILBO

Banatzaileak: ZABALTZEN Igara bidea 88, DONOSTIA

U.E.U. General Concha 25, 6. 48010 BILBO

## **AURKIBIDEA**

<b>SARRERA</b> .....	7
<b>EUSKAL HAUR LITERATURAREN HISTORIA</b> .....	9
<i>Xabier Etxaniz</i>	
<b>NORK INBENTATU ZUEN ADARRA JOTZEKO</b>	
<b>MAKINA</b> .....	31
<i>Pako Aristi</i>	
<b>HAUR POESIA EDO LIHOAREN NEKE ETA PENAK</b> ..	41
<i>Juan kruz Igerabide</i>	
<b>HAUR LITERATURA ETA GIZARTEA</b> .....	65
<i>Manu López Gaseni</i>	
<b>MEZU IDEOLOGIKOAK HAUR LITERATURAN</b> .....	73
<i>Mariasun Landa</i>	
<b>IPUINGINTZA TRADIZIONALA NARRATIBA</b>	
<b>MODERNOAN</b>	
<i>(edo Egiak eta Gezurrak idazle baten buruan)</i> .....	83
<i>Patxi Zubizarreta</i>	
<b>TXANOGORRITXUK OTSOA HIL ZUENEKOA</b>	
<i>edo euskal haur literaturaren hamar "p"</i> .....	91
<i>Xabier Etxaniz</i>	

## MARRAZKIEN AURKIBIDEA

Pedro Osés, <i>Ijitoak dauzkat nire etxean</i> , Joxemari Iturralde, Pamiela 1988, 79 orr. ....	Azala
Agurtzane Villate, <i>Ali Baba eta berrogei lapurrak</i> , Patxi Zubizarretaren edizioa, Pamiela 1992, 47 orr. ....	9
Jon Zabaleta: <i>Tele Joxeme</i> , Xabier Mendiguren, Elkar 1992, 47 orr. ....	31
Antton Olariaga: <i>Bederatzi gutun t'erdia</i> , Erein 1992, 21. orr. ....	41
Xabier Erostarbe, <i>Borroka arroka</i> , Manu López Gaseni, Erein 1991, 79. orr. ....	65
Asun Balzola: <i>Alex</i> , M.A. Landa, Erein 1990, 7. orr. ....	73
Daniel Redondo: <i>Ametsetako mutila</i> , Patxi Zubizarreta, Elkar 1991, 29. orr. ....	83
Josu Olano: <i>Gola, karu trapezista</i> , Xabier Etxaniz, Pamiela 1990, 12. orr. ....	91

Eskerrak eman nahi diegu marrazkion egile guztiei, bai eta Elkar, Erein eta Pamiela argitaletxeei ere, liburu honetan argitaratzeko baimena emateagatik.

## **SARRERA HITZAK**

Esku artean duzun liburuaren jatorria uzaileko astebete sargoritsu batean kokatu behar da, Iruñean, Udako Euskal Unibertsitatearen Literatura Sailak antolatu zuen "Euskal haur eta gazte literatura" ikastaroan, alegia. Bertan emandako hitzaldietatik bat edo beste liburutik kanpora geratu da, haietan alde praktikoak zuen nagusigoak hala eskatuta. Pako Aristik, Iruñeakoan zuzenean parte hartzerik izan ez bazuen ere, argitalpenerako bere ekarpena erantsi nahi izan du. Xabier Etxanizen bigarren artikuluak, berriz, UEUren Gasteizko Ihardunaldietarako prestaturiko hitzaldia jasotzen du.

Ikastaro haren helburuak ziren euskal haur eta gazte literaturaren historia eta eguneko egoera aztertzea. Etxanizen artikulu biak parez pare jorratzen dituzte gaiok. Gainontzeko artikuluetan alderdi espezifikokoak aztertzen dituzte egileek: fantasiaren erabilera gehiegizkoa Aristik, poesiak haurren garapenean izan dezakeen garrantzia Igerabidek, errealismoa gazte literaturan Manu Lópezek, sexismoa ipuin tradizioaletan Landak, eta tradizioaren egitekoa gaur eguneko haur literaturan Zubizarretak.

Ikuspegi orokorrak eta pertsonalak, alde teorikoak eta esperientziazkoak biltzen ditu artikulu bilduma honek. Garaiotan sarri hain korapilatsua gertatzen den gar honen inguruan, argigarri izan bitez azterketa saiook.

*Gerardo Markuleta*

*EUSKAL HAUR LITERATURAREN HISTORIA*

*Xabier Etxaniz*



Azken urteotan eta zenbait kausa direla medio, hau literaturaren berpizte baten aurrean aurkitzen gara (Euskal Herrian bertan ere gero eta indar gehiago du haur literaturak). Arrazoiak ugari dira, baina oro har, mundu osoa harturik, haurtzaroari ematen zaion tratamendu berria (haurra ez da gizon-emakumetxo bat, bere nortasuna eta ezaugarriak dituen pertsona baizik) eta oraingo pedagogia aurrerakoia dira berpizte honen zergatiak. Gaur egun, Piaget, Neill, Durkheim eta beste zenbait ikerlariren lanaren ondorioz, irakaskuntza berri bat defendatzen da, irakasliburu atsegina bultzatzen da.

Fenomeno asko gertatu dira, beraz, azken urteotan: Haurraren Nazioarteko Urtea, Haur literatur lehiaketak, Sariak, Haur liburuaren presentzia merkatuan, bere inguruko erakundeak (IBBY), Ikastaroak... Eta gertaera hauek haur literaturaren berpizte horrekin batera eman dira, berpizte hori eragin dute.

Baina orain gauden egoera honetara ailegatzeko, eboluzio bat eman da, progresio orokor bat eman da haurtzaroan, pedagogian eta haur literaturan.

## ***HAUR LITERATURAREN HISTORIAZ***

### ***Ahozko literatura***

Haur literaturaren historia egitean, oso argi eta garbi utzi behar da literaturaren barnean ahozko literatura ere kontutan izan behar dugula historia hori egiterakoan. Are gehiago gure kasuan, ahozko literaturak pisu handia baitu Euskal Herrian.

Lo-kantak, ipuinak, olerkiak, haur-jolasak, aho-korapiloak, igarkizunak, etab. haur literaturak bereganatu dituen elementuak dira. Batzuk, gainera, badirudi ez zeudela haurrei zuzenduta (lo-kantak, ipuinak,...), baina haurrek bereganatu dituzte eta gaur egun haur literaturaren osagarri garrantzitsuak dira. Herri bakoitzak du bere folklorea eta beraren bidez azaldu ohi ditu bere jatorria, munduaren ikuspegia eta ohiturak (Basajaun, Lamiak, Jentilak, Makilakixki); bestalde, olerki eta jokoen bidez, hizkuntza ezagutzen dute; esan daiteke, hizkuntzaren erabilpena dela garrantzitsuena hasierako literatura honetan: hitzak indarra hartzen du eta jostagai bilakatzen da.

Ahoz-ahoz eta belaunaldiz-belaunaldi supazterñoan transmitituriko literatura dugu hau; eta orain, gizarte ruralaren krisia dela eta, krisian aurkitzen da.

Baina krisian aurkitu arren, euskal ahozko literatura kalitate handikoa da, eta Koldo Mitxelenak bere *Historia de la Literatura Vasca* liburuan (Madrid, Minotauro, 1960, 23. orrian) dioen bezala Euskal ahozko literaturak ez die inolako enbidiarik izan behar gure inguruko herrialdeetakoiei. Bai kantitate bai kalitate aldetik, harro egon gaitzke gure ahozko literaturaz.

Manuel de Lekuonak, ahozko literatura gehien ikertu duten horietakoak, terminoen beraren ezegokitasuna aipatu du, literaturak idatzia izan behar duela ematen baitu. Baina honetaz gain, Lekuonak gure ahozko literatura artzai-garaikoen artean kokatzen du, zaharra dela dio, neolitikokoak diren apain olerkiekin eta historiaurrekoa den bertsolaritzaekin, baina hala ere, ikertzaile honek ere, kalitatea goraiatzen du, kalitatea eta idatzizkoa terminoak lotzen dituztenen aurrean.



Ahozko literatura eta idatzizkoaren artean aurki daitezkeen ezberdintasun nagusien artean aipatzekoak dira honako bi hauek:

-Ahozko literatura kantatzeko den bitartean, bestea errezitatzeko egin ohi da.

-Ahozko literatura bapatekoa dugu, azkar egin daiteke (bertsolaritza dugu adibiderik argiena), eta idatzizkoa berriz, astiro, luze pentsatuz, zuzendurik.

Euskal Herrian beren lanarekin sakonera eta zabalkundeagatik izen bi aipatzekotan, R. M. Azkue eta J.M. Barandiaran aipatu beharko genituzke arlo honetan egindako ikerketari dagokionez. Baina ahaztu gabe hainbat eta hainbat pertsonaren lana, hala nola:

-Jean François Cerquand, *Legends et récits populaires du Pays Basque*. (1883)

-Julies Vinson, *Le Folklore du Pays Basque*, (1883)

-Wentworth Webster, *Basque Legends* liburuarekin (1877)

edo gure artean ezagunagoak diren Barbier, Urruano, Larrakoetxea edo Arratibel, izen batzuk aipatzeagatik.

### ***Literatura idatzia***

Haur literatura idatziaren historia egitean planteatzen zaigun lehen arazoa honakoa da: ea **zer den haur literatura**. Galdera berez nahiko konplikatu da eta guk, erantzuna sinpletu nahian edo, haur literaturatzat haurrek egindako edo haurrei zuzendutakoa kontsideratu beharrean, haurrek irakur eta uler dezaketena sartuko dugu haur literaturan; horrela, haurrei zuzendutako liburuen ondoan aurkituko ditugu *Altxor uhartea*, *Tormesko itsu-mutila*, *Platero eta biok* eta beste asko: berez helduei zuzenduak zeuden liburuak, baina haurrek bere egin dituztela eta, haur literaturan sartzen ditugunak.

Zaila da haur literatura idatziaren hasiera kokatzea, ia ezinezkoa da esatea noiz hasi den zehatz-mehatz, baina argi eta garbi dago une hori, ekintza hori, prozesu baten ondorioa dela, eta fenomeno askoren ondorioa. Guk geuk hemen, fenomeno, prozesu guzti hori, aipatu egingo dugu.

Fenomeno horien hasiera **Indian kokatzen da: IV. mendean** argitaratu zen *Panchatantra* izeneko liburua, Daroucha erregearen seme-alabentzat. Liburu honetan markatu dira Erdi Aroan oraindik ere haur literaturan emango diren erregelak:

- 1- Hurrei zuzendurik egotea eta
- 2- Atsegina eta didaktikoa izatea.

Honelako liburuez gain, helduentzat idatzitako zenbait lan bereganatuko dituzte hurrek, hala nola *El Conde Lucanor*, *El Mío Cid* eta antzekoak. Suposatzen da, Euskal Herriko baladak ere arreta handiz entzungo zituztela orduan haur eta gazteek.

1390. urtean, Geoffrey Chaucer idazleak (*Canterbury Tales* liburuaren egileak) *Tretis of the Astrolabie* (Astrolabioaren tratatua) izeneko liburua idatzi zuen bere hamar urtetako semearentzat.

1550ean G. Straparolak idatzitako *Piacevole notti* liburua kaleratu da, lehenengo maitagarri ipuinak argitaratuz Europan.

Ez dira haurrentzako liburuak, baina ziur gaude irakurgai berak zituztela helduek eta hurrek, eta horrela izango da Ernazimenduaren zati handi batean ere.

**XVII. mendean** hainbat gertaera nagusi ditugu haur literaturaren historiarako:

Mende horretan izugarrizko arrakasta lortu dute idazki solte batzuk, ipuin, kontaketa edo antzeko testua izanik, zentsura eta traba legal guztiak gainditu gabe argitaratzen diren idazkiak. Izen ezberdinak dituzte baina funtsean gauza bera dira (Pliegos de Cordel gazteleraz, Chapbook ingelesez, De Colportage frantsesez, Volksbücher alemanieraz,...).

1658. urtean argitaratua dugu *Orbis sensualium pictus*, ilustrazioak jaso dituen lehen haur liburua. Johann Amos Comenius-ek idatzi zuen, eta horregatik batzuek kontsideratu izan dute haur literaturaren aita. Bohemian jaioa dugu Comenius, eta, antza denez, nahikoa pedagogo aurreratua izan zen.

XVII. mende horretan ere, *Mila gau eta gau bat gehiago*, liburu ezaguna ekarri du Europara Anton Galland diplomatiko eta jakitunak; eta argia ikusi du La Fontaine-ren *Fables* liburuak.

Herri-ipuinei garrantzi handia emanez, *Lo cunto de li cunti* Giambattista Basilek idatzitako liburua dugu, bertan, eta lehenengo aldiz, ipuin herrikoiak jasoz. *Decameron* eta *Piacevole notti* liburu ezagunen antzera, hari baten bidez loturik agertzen diren istorio ezberdinez osaturiko liburua da. Zoza printzesak, lotan dagoen printze bat iratzartzeko, bertan dagoen untzi bat bete behar du malkoz hiru egunetan, ia ia lortu duenean lokartzen da eta esklaba batek betetzen du eta printzearekin ezkondu. Zozak orduan ipuinak entzuteko gogo bizia piztu du esklabarengan eta honela 49 ipuin kontatuko dizkiote hamar atsok. Azkenean Zozak kontatuko du bere historia eta horrela esklaba heriotz zigorrera kondetatuko dute eta bera printzearekin ezkonduko. Basilek Italiako herri-ipuinetan oinarritu zen liburuko istorioak kontatzeko.

Ipuin harrigarriak idazten dira Europan, eta 1697an **Perrault**-en *Histories et contes du temps passé avec des moralités* liburua kaleratu da, helduentzat pentsatuak hasiera batean, eta gaur egun haurren artean guztiz ezagunak direnak. Hauxe kontsideratzen dute askok haur literaturaren hasiera. Perraulten liburu honetatik abiatu omen da haur literatura, helburu pedagogikoa baztertuz (guztiz ezabatu gabe) literaturak hartzen baitu benetako pisua.

Izugarrizko garrantzia du XVII. mende honek haur literaturan; aurreko mendea Pedagogiaren urrezko mendetzat hartu da eta nahiz eta XVII. mendeko pedagogo garrantzitsuek ez idatzi haur literaturarik (Saavedra, Fajardo, Juan de Huarte, Pedro Dimón Abril,...), garai horretan, eta lehenbiziko aldiz, kontutan hartu da haurraren hizkuntz maila; eta Rabelais, Montaigne eta antzeko pentsalariei esker hasi da helduaroa eta haurtzaroa bereizten.

**XVIII. mendean** jarraitzen du, eta areagotzen da, erabilpen didaktikoa. Robinsonen mendea dugu, Gulliver-ek bidaiak egingo ditu eta John Newberry-ren eskutik sortzen da **“Juvenile Library”**(1750).

Haur literatura erabiltzen da mundua azaltzeko: fisika, historia, geografia... irakasteko. **Rousseau**-k *Emilio* argitaratzen du, eta besteak beste, **Robinson Crusoe** (1719) liburua hartzen du heziketaren bibliatzat. Garaiko filosofo eta pentsalariak haurrak literatura berezia behar duela uste dute. Haur liburuak enkargatzen dira (Iriarteren *Alegiak* Floridablancak, Samaniegorenak Peñafloidak, etab). Giro honetan, eta didaktismoak bultzaturik, liburu errealista primatzen da, fantastikoa gaizki kontsideratzen delarik, kaltegarritzat heziketarako. Hurrengo mendean, aldiz, nahikoa panorama

ezberdina azaltzen zaigu eta horren aitzindari bezala dugu K.A. Musaeus idazlearen Alemaniako herri-ipuinen bilduma 1782an.

**XIX. mende**-hasieran kaleratu da lehen euskal haur liburua: **Vicenta Moguel**-en *Ipui onac*, 1804ean argitaratua eta Esoporen 50 alegi dituen. Hurrengo urtean, 1805ean, Andersen jaioko da eta 1812an Grimm anaiei ipuinek ikusiko dute argia.

Haur literaturaren historian menderik garrantzitsuena dugu hau. Fantasia, irudimena, estetika eta sormena inposatzen dira etika eta pedagogiaren aurrean. Haur literaturaren idazle nagusienak ditugu: Grimm anaiak, Andersen, Hoffmann, Lewis Carroll, Jules Verne, Collodi, W. Busch, Stevenson, Charles Dickens... Euskal Herrian Vicenta Moguel, Juan Jose Moguel eta Agustin Pascual Ugalde Iturriaga ditugu; azken hau alegigilea ere (Britainia Haundian, esaterako, XV. mendean hasi zen alegien erabilpena; Euskal Herrian berriz, hiru mende beranduago). Haurrentzako lehen liburuak ditugu euskaraz, didaktismoa jarraituz eta Europako korrente berrietatik urrun; eta literatur liburu horiez gain beste zenbait liburu argitaratu dira haurrentzat: 1828an M. Eyharteren *Haurtchoen lehen escola errientic gabe, edo aitamac errient*; 1846an Baionan argitaraturiko *Haurren liburua. Meça eta besperac*; edo 1858an J. Duvoisinen *Laborantzako liburua*.

XIX. mende honetan ugaritzen dira haur aldizkariak; komikiak ere bere lehen urratsak emango ditu. Zientzia fikzioa, *Nonsense*-a, errealismoa, hirurak nahasirik eta indar handiz agertuko zaizkigu. Ilargira doazen gizonak, mintzo den karta edo beltzen zapalketa agertuko zaizkigu.

Lehen aldiz ematen da bukaera triste bat (Andersen

zenbait ipuinetan, “Berunezko soldaduak”en, esaterako), lehen aldiz hiltzen dira haurrak (Dickensen eta H. Malot-en liburuetan, edo *Corazón*-en). Haurrari mundua azaltzen zaio ikus dezan, ikas dezan; baina beti arte-lana zaizkiz; ipuinak, liburuak, artistikoki erabiltzen dituzte.

Mende horren bukaera aldera, eta erromantizismoaren eraginez, zenbait lan egin dira, indioei buruzko liburuak esaterako (James Cooper eta Karl May-k idatzitakoak); zenbait lurraldetan abertzaletasun-sentimendua sortzen da: gure herrian, Katalunian, etab. Hemen sentimendu horrek ez baldin bazuen haur literaturaren gehitzea sortarazi, Katalunian indar eta eragin handia eduki zuen. Izan ere, heziketa katalanez nahi zutenez gero, haur literatur produkzioa asko handitu zen. Gure herrian, XX. mendearen lehen herenean emango da haur literaturaren gehitze hau.

**XX. mendea** hiru zati nagusitan bana dezakegu: gerra aurrekoa, gerra ondorengoa eta 60ko hamarkadatik honakoa. Eta honako zatiketa hau mundu osoan, Euskal Herrian barne, ematen da.

### Gerraurrea

Mende honen lehen herenean (1900-1930) aurreko mendean ekindako bidetik jarraitu zuen haur literaturak, gero eta sendoago, gero eta produktu hobea ateratzen zelarik. 1919an McMillan argitaletxeak pertsona bat jarri zuen haur literaturaren kargu. EEBBetako haur literaturaren lehen urratsak ziren. Europan, berriz, *Peter Pan*, *Babar*, *Peter Rabbit* kaleratzen dira; informazio eta entretenimendu liburuak nagusitzen badira ere, fantasia eta atsegina bultzatzen dira.

Euskal Herrian, 1918an kalea ikusi zuen Kirikiñoren *Abarrak* liburuak; 1927an, *Pernando Amezketarra. Bere ateraldi ta gertaerak* Gregorio Mugicaren liburua plazaratu zen; aurreko urtean Jules Moulier “Oxobi”ren *Alegiak* izan ziren, 1931n Jean Barbier-ek *Legendes du Pays Basque d’après la Tradition* idatziko du. Gure literaturaren berpizte baten aurrean gaude, abertzaletasuna sendotzen ari da gizartearen eta euskal heziketa izateko lehen pausoak ematen. Giro honetan, kanpoko liburuak ere itzultzen hasten dira: 1932an “Oxolua”k *Bertoldaren maltzurkeri zurrak eta Bertoldinen txaldankeri barregarriak* liburua itzuliko du (1986an, eta Xabier Mendigurenek itzulia, Elkar-ek berriro plazaratu duena). Grimm anaien ipuinak ere itzuliak dira (Larrakoetxeak eta J. Altunak egindako itzulpenak; azken honek O. Wilde-ren ipuinak ere itzuliko ditu 1927an), eta Schmid-en ipuinak Gabriel Manterolak euskaratzen ditu 1934ean *Ipuintxuak* izeneko liburuan. Euskal haur literaturaren hasiera indartsu eta nahikoa sendoa izan zitekeen hau (bertako folklorea eta kanpoko liburu ezagunetatik hasita), 1936ko guda dela kausa eten egin da.

EEBBetan Wall Street-eko krisiaren ondorioz oso gutxi argitaratzen da (argitaratzen dena, oso kalitate onekoa da); Europan Babar liburu saila sortzen da, Jean de Brunhoff-ek (1899-1936) idatzi eta marraztutako liburuak; 1932an Peré Castor-en lehen albuma kaleratzen da pedagogia eta artea elkarrekin doazelarik, eta “benetako poesia, sormen-lana, lurra, unibertsoa eta harrigarriarekiko beharra” helburutzat duelarik.

Babar, Peré Castor eta antzeko lanetan, zera lortu nahi da: haurra, naturarekiko harremanen bidez giza erlazioetara ailegatzea. Irakasliburu atsegina defendatzen da.

Estatu espainolean, haur prentsaren gorakada handia ematen da. 1906an “Gente Menuda” kaleratzen da, 1914ean “Los Muchachos”, 1925ean “Pinocho”, eta ugaritze-une honetan, gorakada honen erdian, 1936ko gerra hemen eta 1939koa mundu osoan.

### Gerra ondorengo hutsunea

Gerra ondoren basamortu zabala ageri da haur literaturaren munduan; krisia, behar beharrezko gauzen falta, errepresioa,... asko dira egoera horren kausanteak; Euskal Herrian, Francoren diktadurak ezinezko bihurtzen du euskaraz hitz egitea, idaztea, publikatzea. Europa krisi latzean dago, deuseztaturik; heriotzak, goseak, emigrazioak eraman dituzte idazle eta ilustratzaile asko eta asko. Horietako baten liburua argitaratuko da gerra bukatu zen urtean: Marie-Antoine-Roger de Saint-Exupéry-ren *Printze txikia* (duela gutxi Txertoak, bigarren aldiz, euskaraz argitaratua). Europatik EEBBetara alde egiten dute idazle eta ilustratzaile askok, eta horren ondorioz indartzen da EEBBetako haur literatura (Munro Leaf, *Ferdinando zezena* liburuaren egilea, da horietako bat). 1945. urtean sortzen da han C.B.C. (Children’s Book Council) erakundea, argialetxeek eraginda eta haur literatura bultzatu asmoz.

Europako basamortuan, aldiz, oasi txiki batzuk agertzen dira: Tove Jansson idazle finlandiarraren *Munin* liburuak, esate baterako, edo Astrid Lindgren-ek 1944ean idatzitako *Fifi Brindacier* (*Pippa Mediaslargas*.) Liburu hau bere alaba gaixo zegoelarik bururatu zitzaion Astrid Lindgren-i (izenburua alabak ezarri zion) eta ohean zetzan alabari kontatu zion; gero, 1944ean bera gaixo eta ohean egon beharrean aurkitu zenean, idatzi zuen liburua. *Pippa Mediaslargas*-ek pedagogoen kritika zorrotzenak



eta haurren ongietorri beroa jaso zituen; haur literaturan, normalean, haurrek bereganatu dituzte liburu onak, edo beraiei zuzendu zaizkie pedagogoen erizpideak jarraituz; baina, kasu honetan, *Pippa Mediaslargas* honekin, oso fenomeno berezia sortzen da: haurrek gustu handiz hartzen dute liburua, berehala bereganatzen dute, eta, bestalde, pedagogoen kritikatu egin zuten, kaltegarria zelakoan, errealitatea eta fantasia nahasteagatik. Geroago pedagogo askok atzera egin dute eta onartu egin dute liburu honen balioa. Haurrek aspaldidanik zuten onartua!

Askorentzat hau dateke haur literatura modernoaren hasiera. Pippa bera da liburuko heroia eta bere paper horretan haurrari seguritatea ematen dio hazkunde-prozesuan eta lagundu egiten dio bere autonomia bilatzen.

**Didaktismoa** ez da amaitu haur literaturan, baina inposatu beharrean erreflexionatzeko bidea erakusten zaio irakurleari.

Garai honetan, baita, eta inguruko pobreziaz kutsatu ez zen beste liburu bat, *Marcelino Pan y Vino*, José María Sánchez Silva-ren liburu ezaguna dugu. 1952an argitaratu zen eta 30 hizkuntzataraz itzuli da (euskaraz *Ardo ta Ogi*, *Martxelin* izenburuz eta Jose Maria Satrustegiren itzulpenaz 1970ean); idazleak Andersen saria jaso zuen 1968an (sari hori jaso duen estatu espainoleko pertsona bakarra).

Euskal Herrian zailtasun handiak daude eta oso jende gutxik argitara dezake euskaraz. Jules Moulier-ek *Haur elhe haurrentzat* argitaratzen du 1944ean; hegoaldean berriz, Plazido Mujikak euskaraturiko *Noni eta Mani. Islandiar mutiko biren gertaldiak* izeneko liburuak, Kuliska-Sortari eman zion hasiera 1952an. Sorta honek garrantzi handia izango du hurrengo

urteetan euskal literaturaren barrenean. Eta, azkenik, garai honetako idazle bat aipatu beharrea aurkitzen gara: Yon Etxaide. Yon Etxaidek *Alos-torrea* (1950) eleberria, *Pura! Pura!* (1953) ipuin-sorta, *Pernando Plaentxiatarra* (1957) ipuinak eta *Amasei seme Euskalerriko* (1958) biografiak, argitaratzen ditu urte hauetan. Oso hizkuntza landua eta aberatsa erabiliz, lan handia egin zuen, hemengo zailtasunak gaindituz, obra guzti horiek plazaratzen.

Eta honela, oasiak ugaritzen diren heinean ailegatzen gara 1960ko hamarkadara, guk haur literatura modernoaren zabaltze eta ugaritze datatzat hartu duguna.

#### Haur literaturaren boom-a.

Felicidad Orquin idazle eta kritikoak dioenez, 60ko hamarkadan hasten da *haur literatura* kontzeptua seriooki erabiltzen. Une horretan —mentalitate-aldaketa dela eta—, haurra jadanik ez da gizon-emakumetxo bezala kontsideratzen, nortasun propioa duen pertsona bezala baizik; bestalde, idazkiek balio poetikoa dute. Urte “zoriontsuak” dira, dirua dago, ekonomi egoera ona, industrializazioa ematen da; herritik hirira, baserritik herrirako aldaketa ematen da. Familien errenta igotzen da.

Haur literaturan ere nabaritzen da gorakada hau; bestalde, haur literatura indartzeko erakundeak sortzen dira, horietan garrantzitsuena IBBY (Internationak Board on Books for Young People) delarik. IBBY 1953an sortu zen Zurich-en haur literatura bultzatzeko asmoz eta berek sortua da Hans C. Andersen saria, haur literaturaren nobel saria kontsideratzen dena, eta 1956. urtean sortua. Urte horretan bertan eman zen lehenbiziko aldiz

“Deutscher Jugendbuchpreis” saria Alemanian, haur liburu onenari emana eta indar handia hartu duena.

Francfort-eko azokan leku gutxi duela eta, haur literaturarako azoka bat antolatzen da 1964ean Bolonian.

Apur-apurka, eta herrialde ezberdinetan, haur literaturak gero eta pisu handiagoa hartzen du. W.Disney-ren pelikulak, **Freinet eta Rodari**-ren eragina, **UNESCO**k harturiko erabakiak, **poltsiko-edizioak** eginez lortzen den prezioa... asko eta asko dira indartze honen kausak.

Euskal Herrian ere, ugaritze txiki bat ematen da: urte luzeen isiltasuna puskatuz kaleratzen dira *Amandriaren altzoan* (1961) Juliana de Azpeitiak idatzia, *Sorgiñaren umea, Umeentzako kontuak* (1966) Martin Ugalderena, edo Nemesio Etxanizek egindako *Lur berri bila* (1967). Lehen **ikastolak** sortzen dira eta horrek bultzaturik idazten dira lehen liburu eta aldizkariak (1966an sortzen da Bilbon “Umeen Deia”, José Antonio Retolazak bultzaturik; 10 urte beranduago, berriz, “Ipurbeltz”ek ikusiko du argia).

**Euskara batua** sortzeak ere erraztu egingo du literatur zabalkundea. Euskal haur literaturaren birsortze hau, etengabeko aurrerapen bilakatuko da 1970ko hamarkadan, eta boom handi 80ko hamarkadan. Pedagogi aldaketa, hizkuntz askatasun handiagoa, familien errenta eta editorialek nahiz idazle-ilustratzaileek egindako lan handigaitza izan dira gure herrian fenomeno hau gertatzearen kausak.

1970eko hamarkada-hasieran “**Kimu saila**” sortzen du Gero argitaletxeak. Urte horietako askatasun politikoa aprobetxatuz,

euskal kultura, historia eta literatura eraman nahi dituzte ikastola berrietara. Pertsonaia historikoen biografiak argitaratzen dituzte, gure mitologiako pertsonaiekin batera: *Antso Garteiz*, *Amaia*, *Eneko Haritza*, *Kattalin Erauso* (J.M. Arrieta eta I. Azkunek idatzita); antzerki-lanak publikatzen dira: *Martin Arotza eta Juan Deabrua eta sendagile Maltzurra*, edota *Buruntza azpian*, biak Lourdes Iriondoren eskutik. Literatur liburuak izanik, oso helburu pedagogikoa dute; urteetan azaldu ezin izan ditugun kultura, historia eta literatura erakusteko modu bat; euskara berreskuratzeko tresnak (antzerkia oso medio baliagarria da); eta, horiekin batera, haurrek berek egindako lanak ditugu “Kimu sail” honetan: *Haurra ipuin denean*, Anjel Lertxundik eragindako eta Zarauzko ikastolako haurrek idatzitako ipuin-bilduma dugu, berek idatzi eta marraztutako liburua. Antzekoa da Elgoibarko ikastolakoekin egin zutena: *Izarren begietan*, poesi bilduma Arantxa Carbonell-ek ilustratua eta 1975ean argitaratua.

Inguruko horretan kaleratzen dira zenbait *Asterix* euskaraz, I. Beobidek sorturiko argitaletxean; iparraldean Peré Castor-en bildumako laupabost liburu atsegin eta interesgarri argitaratuko dira Jean-Louis Davant-ek itzuliak (*Adixkide onak*, *Ahuntza eta pittikak*, eta abar). Kanpoko argitaletxeak ere interesatzen hasten dira. Pixka-pixkanaka eskaintza zabaltzen ari da, ikastoletarako oinarrizko testu liburuak egiten dira. “Nire lehen liburuak” saila publikatzen da 1977an, hurrengo urtean Kataluniako La Galerak –X. Mendigurennek itzulia– “Apurrak” saila argitaratuko du euskaraz.

Franco hil egin da eta **abertzaletasun-sentimendu** izugarria dago gure gizartean, mobilizazioak ematen dira politikan eta kulturean. Gero eta jende gehiagok ikasten du euskara eta euskaraz. Ikastolak finkatzen dira.

Euskal Herriko argitaletxeek ez dute indarririk, eta kanpotik etorriko dira haur liburuak. Behar handia dago, demanda handia, eta oferta, aldiz, nahikoa murriztua. Giro horretan sortzen dira **Erein eta Elkar** argitaletxeak, eta Hordago haur munduan sartzten da. Erein eta Elkar, hasiera batean, buru-belarri sartzten dira haur literaturan eta horrela, 1980-82 bitartean benetako boom bat ematen da. 1979an sortzen dira “Tximista”, “Itzul” eta “Irakur” sailak; 1980an berriz, “Sor”, “Txori” eta “Axut”; 1981ean “Auskalo”. “Sorgin” eta “Birigarro”. Hurrengo urteetan ere sail berriak sortu dira.

Geroago etorriko dira Hordago argitaletxearen porrota, baina baita Pamiela sortu berria, edo apur apurka erdal argitaletxeak berriro itzultzea (1986tik aurrera), eta gaur egun Anaya, S.M., Bruño, Edelvives, Alfaguara, Altea argitaletxeak euskaraz ari dira beren lanak kaleratzen.

### **ORAINGO HAUR LITERATURA**

Kantitate/kalitate binomioa kontutan izanik, bion arteko korrelazio bat ematen da, ugaritzearekin batera maila igotzea baitator. Estatu espainolean gaztelaniaz idatzitako haur liburuen artean, honako eboluzio hau egon da azken urteotan:

	Haur liburuak	Guztiaren %
1970	1.842	% 9,3
1975	2.275	% 9,6
1979	2.997	%12,19
1980	4.912	%17,7
1982	5.071	%16,8

Ikusten den bezala, 1979-80 urteen artean izugarrizko alde dago; honen arrazoia, Haurren Nazioarteko Urtea da. Izan ere, 1979a Haurren Nazioarteko Urte izendatu zuen UNESCOk. Gertaera horrek, haurreenganako kezka berriarekin batera, bultzatu egin zuen eta eragin haur literatura. Euskal Herrian ere, garai horretan hasten dira argialetxeak sail berriak sortzen.

Liburu-produkzioaren igoera hau 1986ra arte eman zen, eta 87tik aurrera produkzio-kopurua jaitsiz joan da 1991an 4.962 liburu argitaratu direlarik. Datuak ikusita, badirudi haur literaturak bere sabaia ikutu duela eta kantitatean bederen, ez duela aurrera joko.

Baina kantitatearekin batera, kalitatea etorri da; sariak, lehiaketak, azterlanak, kongresuak, erakunde bereziak, ikastaroak, etab. Haur literatura serioago hartu da, lan literarioagoak egin dira, garrantzi handiagoa eman zaio.

Bestalde, haur literatura mundu osora ari da zabaltzen. Iranen, esate baterako, duela 20 bat urte sortu zen haur literatura idatzia, Senegalen duela 15 bat urte, Kenyan ere orain dela gutxi. Herrialde batzuetan, Iberiar Penintsula barne, gorakada eta progresio hau ematen ari den bitartean, beste herrialdeetan krisi txiki bat ematen ari da dagoeneko.

EUSKAL HERRIAN argitaraturiko liburu-kopuruan emaniko eboluzioa ere oso adierazgarria da azken hamarkada honetan:

Urtea	Liburu kopurua
1980	209
1983	401
1986	602
1988	774
1989	732
1990	889

hautetatik laurdena edo herena izaten da haur liburua.

Dena den, ez gaitezen engaina, liburu guzti horietatik zenbat dira sormen-lanak? zenbat itzulpen? zenbat berrargitarapen? 1991ko abenduaren 5ean eta EHAAn kaleratutako laguntza jaso duten liburu-zerrenda ikusirik (90eko abendutik ordura arte lehendabizi aldiz euskaraz argitaratzen diren liburu ia guztiak), honako datu hauek ditugu:

1991an:

- Liburu berriak euskaraz: 275
- Haur liburu berriak: 170
- Sormen-lanak haur literaturan: 20.

***Oraingo euskal haur literaturaren zenbait fenomeno:***

- 1- Euskal Herrian ezin dugu esan *literatur kritika* bere une gorenean aurkitzen denik, are gutxiago haur literaturan. Ez dago kritikarik, eta hau oso arriskutsua da, maila honetan aukeraketa bat eman behar izaten baita; kontutan izan, jende askok, haur askok, ez duela irakurtzen ez duelako liburu egokirik aurkitu.

- 2- *Informazio-lekuak* falta dira. Goiko kritika azaltzeko lekuak, egunkari, aldizkari, foileto batzu: liburu onak azaltzeko, propaganda egiteko, gidatzeko, irakurleak bere aukera hobeto egin dezan.
- 3- *Itzulpen*-politika serio bat, kanpoko idazle klasikoak nahiz berriak euskaratzeko eta, era berean, euskal idazle onenen lanak *erdaratzeko*.

Orain arte euskaraz argitaratzen diren lan gehienak argitaletzek beraiek eginiko planen arabera egin dira. Eta hizkuntza gutxi batzuetatik jasotzen ditugu liburuak. Ikus bestela ondorengo koadroak gaztelararen eta euskararen kasuak konparatuz:

Estatu espainolean 1972-1984 urte bitartean 10.375 liburu itzuli ziren beste hizkuntzatatik gaztelaniara (produzkie osoaren % 25a), honela banatu zirelarik garrantzitsuenak:

Ingeleseratik	5.066 liburu (guztiaren %13a)
Frantseseratik	2.213 liburu (guztiaren % 5a)
Alemaneratik	1.084 liburu (guztiaren % 2,7a)
Italiaeratik	1.035 liburu (guztiaren %2,6a)
Suomieratik	126 liburu

Ikusten den bezala, inguruko herrialdeetako liburuak itzuli ziren eta erdiak ingeleseratik.

Euskararazko ITZUL saila (Elkar argitaletxea) oinarri bezala harturik, bertan argitaraturiko 86 itzulpenak honako hizkuntz hauetan banatzen dira:



Alemaneratik	29
Ingeleseratik	16
Katalaneratik	12
Italieratik	10 (Rodari)
Frantseseratik	8 (Goscinny)
Besteak	11

**NORK INBENTATU ZUEN ADARRA  
JOTZEKO MAKINA?**

*Pako Aristi*



Herri koskor bateko umeak ginela (garrantzizkoa deritzot hasierako bi hitzon zehaztapena hainbat hiritan emandako hitzaldi zenbaiten ondorioak darakustanez) sarritan egiten ziguten galdera da izenburuak bere baitan dakarrena, eta guk, inbentuak aspaldiko gauzak ziren usteaz sortzailea gure adimenak (eta are gutxiago memoriak) ausnartu ezin zezakeen misteriotzat harturik, sorbaldak astintzen genituen galdera egiten ari zitzaigun hura bera adarjole mozorrotu ote zen zalantza ia gabeaz.

Ordea denbora pistak ematen hasi zitzaigun makina haren itxura eta bere erabilpenari buruzkoak, erantzun horretan listoagoak izateko pauso handi samarra gordetzen zelako aztarnak piztu zigun kezka asetzeraz zetozenak. Adibidez, sakon mamitutako sistema batez dozenaren bat suge harrapatu genizkionean ibaiari eta haiekin tortura berezien aprobak egiten ari ginela herriko enparantzan sakristaua etorri zitzaigun, soldaduska Saharan egin zuela eta han sugeak suaz inguratu ezkerre zutitu eta dantzatzen hasten zirela kontatuaz, eta guk ez genuen aukera exotiko hura galdu nahi izan. Dendatik aguarras-pote bat erosi, suge-taldearen inguruan isuri eta emozio handiz eman genion sua likidoari. Sugeak, suzko borobilean urduri hasi ziren, baina han ez zen bat bakarrik ere zutitu eta denak kiskali ziren frustazioaren amorruek aguarras-hondarra piztien gainera botatzera eramanez gintuenean. Pentsatu nuen: hona umeei adarra jotzen dien gizon bat. Baina horrek ez zuen makinaren inbentorea izan zitekeenik baieztatzen erabateko ziurtasunaz.

Gure aitonak ere asko jotzen zigun adarra bere bilobei, buruko ile bat ur-botila hertsian sartu eta sei hilabetetara suge

bilakatzen zela zioenaren antzeko mila istoriokin, guk zertzelada guztiak ongi kunplituz eta azken mugetaraino eramaten genituenak noski. Baina nik uste, eta hau bizitzako beste edozein unetan frogatua ikusi izan dut, prozesu edo aro baten barruan sarturik gauden bitartean distantzia, hoztasuna eta perspektibak hutsegiten digula, beraz zail gertatzen da hori gainditu eta iragan arte zalantza eta kezka uneak ulertzea. Hamalau urte inguru arte adarra jotzeko makina nork inbentatu zuen deskubritu gabe eman nuen, eta kasik ahantzi ere ahantzi nuen gutaz farre egiteko tresna gaiztoa asmatu zuen buruokerraren bilaketa. Zer uste duzue gertatu zela hamalau urte inguruan, bat gora bestea behera?

### ***IRAKURKETA-SAIOAK UMEKERIEN KONTRA***

Larunbata goizetan, eskolatik libre, futbolera, mendira edo txirriindulari-karrerak ikustera joaten ziren lagunetatik aparte, ondasunik preziatuena bezala gordetzen dudan bakardaderako joera lantzen hasi nintzen, orduan gero ikusi dudan honetara eramango ninduela jakin gabe, eta irakurtzen ematen nuen goiz osoa, gure etxean erosi berriak ziren butaka granateetako batean eserita. Lukanor Kontearen istorioak, Zalakainen abenturak, Londonen urrebilatzaileen ipuinak, eta hilabete gozatsuen ondoren konturatu nintzen nork asmatu zuen adarra jotzeko makina, lerroon irakurleak, bertsolari kaskarrari amaiera antzematen zaion legera, honez gero badakien erantzuna: idazleak.

Haurtzaroko irakurketez ez dut oroimen askorik, baina hamar urtetik aurrera hasi nintzen, gaur egun mantentzen dudan iritzia eta nire haur literaturaren oinarrian dagoen ustea, adarra

jo zidatela sentitzen, fantasiaz eta irrealitatez betetako istorio haiekin, eta oso gaizki sentitu nintzen. Eta ez da liburuen esparruan gelditzen den inpresioa, piska bat globalizatuz gauza berdintzat baitauzkat zikoinen kontuak haurren jatorria esplikatzeko, sakamatekasenak beldurtzeko, errege magoenak eta beste guztiak. Orain begiratuta, fantasia-mundu hori adar-jotze bat iruditzen zait, bizitza edertu eta beste zentzu batez jantziko lukeen tresneria bat baino. Badakit norbaitek esango duela (idazten duzunean beti dago zure hitzak idatzi orduko irakurtzen dituen norbait dagoen imajinazio faltsua) haur kontakizunik unibertsalenak, Txano Gorritxu, Lotiarena, Zenizientarenak eta denok dakizkigun horiek, gertaera irreal bezalakoak daudela eta agian, seguruen, hori dela hain zuzen arrakasta horren funtsezko zergatia, baina egia da halaber, nere kasuan, hamar urtetatik aurrera, liburu ezberdinak irakurriaz munduaren ikuspegi berriak dastatzeko aukeraren jabe egin nintzenean nire irakurle-gozamena ordurarte ezagutu gabeko intentsitate berri batez puztu zela.

Puntu honetan gogora datorkit irratic Pello Esnali entzundako elkarrizketa bat, non haur literaturan sari bat lortu eta argitara berria zen liburuaz mintzo zen, besteak beste argumentua esplikatuz. Delako argumentu hau oso fantastikoa zen, eta (liburua ez dudala irakurri aitortuz) ez nuen ezer ulertu. Errege edo antzekoren baten istorioa zen (entzunaren oroimen nahasiaz ari naiz) eta une batean Pello Esnalek esplikatzen zuen nola asteari egun bat kendu zion, egun bakoitzari ordu bat, gisa honetan zihon kenketa-katea luze bat osatu arte. Esan nahi dut ulertu bai, ulertu nuela prozesua, baina ez fantasia horrek istorioaren barnean eduki dezakeen erabilpena, aberastasuna, eta gutxiago horrek haurrari (berdin gazteari) aportatu diezaiokeena.

Antzeko fantasiadun liburuek, niretzat, haurrari erakusten diotena da egileak duen fantasia-ahalmenaren neurri osoa, baina ez fantasia hori nola aplikatu daitekeen haurrak eskura duen mundu hurbilean, ez arazo ttiki eta normalak nola konpon ditzakeen, ez munduaren atalik errazena ulertzen, hala nola, adibidez, gurasoen haserreak, hainbat gauzekiko debekuen zentzua edo hori gainditzeko bideak, lagunaren arteko liskarren zergatia, eta oroitzen zaizkizuen beste guztiak.

Honekin pentsa dezake norbaitek (idazle orok duen beste norbait horrek) mendian superbibentziarako manual praktikoen aldeko naizela, horiek hiri edo etxearen espaziora egokitzen balego argumentu sinple baten inguruan josita. Baina ez da hori. Mugak ezartzea zaila baldin bada ere (ikusirik ez dago nazioen arteko mugak, hainbeste urtetan indarrez mantenduak, zein aisa erortzen diren), kontakizun errealistagoak ditut maite eta defenditzen, eskura dauzkagun baliabideak erabiltzen irakatsiko dutenak, beno, irakatsi hitzaren pedagogikotasuna gehiegizkoa bada ere, horiek erabiltzea posible dela agertuko dutenak.

Nire haur literaturako liburuetan ez da elementu izugarri fantastikorik agertzen, ez du inork hegan egiten, tximiniak edo ispiluak ez dira inorako pasabide, gauaz ez da iratxorik agertzen zure akatsak zuzentzera, txorimaloek ez dute hitzegiten, ibaiak suge, apo eta ezkailuz beterik daude, ez beste ezertaz, protagonisten putadak jasotzen dituztenak hasarretu egiten dira putada horien zentzu ona ulertu eta irrifar egin ordez. Bada literaturari buruzko uste edo iritzi nahi hedatu eta onartu bat idazle gehienentzat, dioena literaturarekin errealitatearen muga estuekiko mendekua burutu dezakezula, normalean gertatu edo perzibitzen ez ditugun gauzatxo horiek kontatuaz, begirada bati halako edo bestelako tankera eman dion gertaera

esplikatuaz, asmatuaz, eta beste mila bide erabiliaz. Konforme hori egitea 'heldutasuna' bezala deitua den adinean, gauzen mugak bereizten ikasi samarrak gaudenean, baina haurtzaroan daudenekin horrela jokatzeari, haiek artean dena posible dela uste duten adinean, ba lehen nioena iruditzen zait, adar jotzea. Alde nabaria dago ilargian aitona bat bizi dela kontatzea hori sines dezakeenari, edo hori bera fabula moduan erabiltzea gezurra dela baina horren bidez istorio eder bat osatu daitekeela dakienarentzat.

Adibide gehiagotan murgildu gabe nire haur liburuetan aplikatu dudako printzipio bakarra laburtzen saiatuko naiz, zigorro baten bost minututako erreflexio-denbora eskaintzen badidazue.

## ***INJENIOAREN ERABILPENA***

Haur literaturak niretzako bi ezaugarri baino ez ditu behar: sinesgaitza den gertaera oro baztertzea eta arazoaren aurrean haurrari eskura duen gauza bakarra erabiltzen erakustea, injenioa, pentsatzeko ahalmena, konponbide majikoak ahaztuta. Nik uste hori dela bidea haurra bere buruaz gustura senti dadin, bere buruaz aktuatzen duten haurren istorioak irakurriaz hark ere gauzak bere buruaz konpon daitezkeela ulertuko duelako. Satisfakzio gutxi dira munduan zerbait zerorrek egin duzula, ez anaia zahar, ez guraso ez artzobispoaren laguntzarekin, gai zarela, gero eta gaiago den-dena konpontzeko, deskubritzen duzunean sentitzen dena baino ederragoak. Askatasuna erabiltzen ikasteko lehen pausoak besterik ez dira, eta lehendabiziko independentzia-zantzuak, pittinak badira ere, gurasoengandik aldentuta bizitzeko.

Gehiegizko helburuak dirudite hauek, baina esango nuke helburu baino filosofia bat baino ez direla, nire lana zentzu batez janzteko eginahalak, gaztetako akanpamentuetan apaiz gorri hark esaten zigun moduan, ideiak izarrak bezalakoak dira, inoiz ez ditugu eskuratzen, baina beti gidatzen dute gure bidea gauean.

Haur literaturako nire produkzioa bi zatitan banatzera behartzen nau ideia nagusi honek. Lehen zatian hiru liburu hauek leudeke:

“MARTINELLOK EZ DU KUKURIK ENTZUTEN”:  
Gure herrian, Urrestillan, tristurarako joera zuen txikitero batek, kontu zaharrak kontatzen hasi eta bukaeran esaten zuen esaldian oinarritua: 'ai, daukadan dena emango niake horiek berriro pelikula batean ikusteagatik'.

“MARTINELLO ETA SEI PIRATA”:  
Urrestillako sei bihurrik beren txabolara meriendatzera gonbidatu ondoren kontatu zizkidatenean ia transkripzio leiala, Martinelloren fikziozko pertsonaia aprobetxatuz.

“ZAZPI PIRATA BALTSA BATEAN”:  
Aurreko liburuaren talde-egitura aprobetxatuaz erabat neronek sortutako bidaia errekan behera.

Liburu aipatuak injenioaren erabilera baino kronika-asmoa dute helburutzat, herri txikietako bizitza moldea jasotzea. Joera berriko lau liburuaren artean zubi moduan beste bat dago:

“MIREN, GARBIÑE ETA SORGIN BATEN KOMERIAK”:  
Jaiotza fantastiko baten ondoren (igelak ziren euren gurasoak) pentsamentuaren arma guztiak erabili beharko dituzte giza itxura eman dien sorgiñak berriro igel bihur ez ditzan.



Artikulu honen funtsa estuen besarkatzen duten liburuak oraingoz nire produkzioan azkeneko laurak direnak lirateke, “MERTXE PANDELETXE” eta “MARI BEXAMEL”-en liburuak:

“JANTOKI TXINOAK”: Jantoki txinora joanik gurasoekin bazkaltzera, bi neskatoek sukaldean likore txinar famatua egiteko dauzkaten muskertxoak libratzea lortuko dute.

“AZKEN LAMIAREN BILA”: Basomutilen istorio bat jarraituz, ea egia den edo ez konprobatzera joango dira mendi malkartsu batera.

“ITSASONTZI BATEN”: Antxoatara doan itsasontzian sartuko dira ezkutuki.

“KENIAKO TXIMELETA”: Keniatik Zornotzako krosa korritzera etorri den lasterkariari zapatila pare bat lapurtzen lagunduko diote almazen handi batzuetan.

Azken lau liburuen ezaugarriak hauek dira:

- Paisaia: Euskal Herriko hiri eta paraje ezagunak, Getaria, Bilbo, Donostia eta Beizamako mendiak.
- Argumentua: Gurasoekin doaz lekuotara, baina berehala aldentzen dira beraiengandik, pertsonaia errealak aurkitzen dituzte, Txomin Artola jantoki txinoan, Kaxiano itsasontzian, Ezekiel Bitok Bilbon, eta sortutako arazoa konpontzen dute burua erabiliaz eta pertsona horien laguntzaz.

- Deskribapenak: lekuak, ambienteak, eurentzat berriak diren gauzak, nesken ikuspuntutik daude deskribatuak. Errealtasun-zentzua ematearren, egunero egiten ditugunak ere deskribatzen dira, adibidez bazkaritan zer jan duten, zein ordutan atera diren etxetik, artzainak duen gaztaren gogorra eta zapore fuertea, neskak komunera doazela etab.

Amaiera-oharra: Hemen landutako teoria hau, neure haur-inpresioetatik sortua, bederatzi urtetatik aurrerako literatur produktiora mugatuko nuke, gutxi gorabehera. Edade hori baino lehen fantasiak beste funtzio batzuk betetzen dituela uste baitut, baina hori beste baterako eztabaidagai izango litzateke.

**HAUR POESIA EDO LIHOAREN  
NEKE ETA PENAK**

*Juan Kruz Igerabide*



Ez dira horrenbeste urte gure soroetatik lihoa desagertu zenetik. Lihoa eta artilea izan dira, batez ere, gure herriak oihalgintzan erabili izan dituen gaiak. Ikus daitezke oraindik garai bateko lihozko zapiak han hemenka.

Lihoa soroan ereitetik ehuna osatua ikusi arterainoko bidean egundokoak ziren tarteko lanak. Emakumeentzat izan ohi zen, batipat, betekizun hori; ohitura zen, gainera, etxeko alaba bakoitzak bere alorra edukitzea, lihoa erein, jaso, landu eta bere ezkonbizitzarako beharrezko arropa osatuz joatearren. Lihoaren neke zein penak kantatu dituztenak anitz izan dira; gaur egun gure artean ezagunenetakoa “Oi, Pello, Pello” izango da, batez ere bakar-kantarien ahotsetik jaso. J.A. Mogel-en **Peru Abarka** liburuan ere badago gai horri buruzko bertsorik:

“Kantatu dagiguzan  
linuaren penak,  
ezpata oneen otsian  
izanik latzenak;  
alkar ondo artuta  
soñuba neurturik  
gorputzeko nekia  
ixteko arindurik”

Hazia erein, handitzean eskuz atera, ondo orraztu eta bildu, beratzen jarri putzu batean, non berehala kiratsa zabaltzen omen zen, hurrena soroan zabaldu lehortzearren, jaso, orraze metalikoz orraztuz gainak kendu, ondoren jo, txarrantxarekin hariak atera, goruetan irun, lixibaz garbitu, harilkatu, ehundu eta, azkenik ebaki eta josi.

“Euskaldun neskatillak,  
 nekiak arturik,  
 eztabe onetako  
 gizonen biarrik;  
 eurak dira erelle  
 lino gijarijak,  
 eunle eta jostun  
 ta gorulari jak”

Nola lihoa lantzen zuten garai bateko neskatxek, hala lantzen du haurrak bere mintzoa: erein egiten du, ingurukoengandik hitzak bere buruan jasoz eta jasoz; fruitua bildu, bere lehen hitzak esanez; harilkatu, esaldi komunikatiboak entseiatuz; ehundu, hizkuntzaren ehuna amaraunduz, diskurtsoa kateatuz; ebaki eta josi, poemak osatuz, adibidez. Liholariei ez bezala, ordea, gizakiari ez zaio ez ehuna, ez soinekoa, erabat osaturik inoiz geratzen.

Poesia liholaritza besterik ez da; liho-landarearen ordez, hitzak erabiltzen direla, besterik ez. Poesian, maiz, ehunari berari ematen zaio lehentasuna; beste zenbaitetan, ehunak hartu behar duen tinteari; bada ebakitze lana lehen mailan jartzen duenik, bada jostea besterik axola ez zaionik; alde asko ditu poesiaren bideak. Bitxia da **Tindalariaren eskua** izatea Auden poetaren saiakera ospetsu baten izenburua.

\*\*\*\*\*

Poesia ehungintza delarik, nahiko alferrikakoa da haur poesiaren eta helduen poesiaren arteko bereizketarik egitea. Biak liho-lana direlarik, ez dago alderik. Haurren eta helduen arteko ezberdintasun poetiko bakarra neurri-kontua da: helduentzat, oihal handiagoak egin behar dira, eta haurrentzat, tikiagoak.

Eta hemen dago lehen tranpa: haurrari dena era murriztuan eta ttikian eman behar ote diogu? Literatura ‘minor’ bat al da haurraren elikagaia? Galdera horrela eginda, gutxi erantzungo luke baietz. Adibidez, denok dakigu hurrek gorputz aldetik jan gutxiago behar izaten dutela; baina, har dezagun beste alde bat, maitasunarena adibidez; hortik ere gutxiago jan behar ote du?

Poesiaren arlora lerratuz, ezin diogu haurrari eskatu abstrakzio logikoaz jabetzerik; baina, sentipen-aldetik, ez ote dute guk bezain sakon barneratzen?

Haurrak sen berezia izan ohi du ikusten ez duenaz jabetzeko, guk baino errazago antzeman ohi ditu pertsonen aldarte-gorabeherak, animaliekin komunikatzeko erraztasun berezia erakutsi ohi du; hurrek elkarren artean berehala ulertzen dute batak bestea. Eta hor ez dago kode-kontua bakarrik; haurraren komunikazio-ahalmena gurea baino murriztuagoa da kontzeptu nahiz jakituria aldetik; baina gauza bera esan ote liteke intuizio edo senaren aldetik?

Horrek guztiak honako puntu hauek proposatzera garamatza:

1. Haurraren pentsamoldea ez da helduona baino arinagoa, sakontasunik gabekoa, beste era batera funtzionatzen duena baizik.
2. Haurrak sentitzen duena gurea bezain sakona da, zein atseginean, zein zorigaitzean, zein bortxakerian, zein sentipenaren beste arlotan.
3. Artea, sentipenezko eta senezko den aldetik, maila berekoa da haurraren eta guregan. Aldea, arte horrek lerramakeen

joskera eta edukin kontzeptuanean dago; alegia, haurren adimena ez dela gauza sinboloen eta kontzeptuen irakurketa konparatiboa, induktibo-deduktiboa, osatzeko, hots, ezaguera logikoa zein linguistikoz poesiaz jabetzeko. Horrek ez du esan nahi, ordea, haurren bizipen poetikoa edo zirrara estetikoa gurea baino ahulagoa denik.

Beraz, haurrari eskaintzeko material poetikoak ez du behar izan produktu edulkoratu edo eztikeriaz betea (hala umore amaneratu batez, nola xamurtasun pedagogiko batez). Hori adierazten zaigu, nolabait, naturalak izan behar dugula esaten digutenean. Haurren adimen eta garatze-maila errespetatuz gero, ez daukagu bizikizunak 'ttiki' frekuentzian jartzten aritu beharrik.

\*\*\*\*\*

Hariak orain zientziari dagokion puntu bat ukitzera garamatza. Hots, garunaren ezkeraldearen eta eskuinaldearen gaiaz aritzera. Marilyn Ferguson psikologoak, gai horri buruzko azterketen laburpena eskaintzen digu, ezkeraldeari logika mailako operazio analitikoak, hizkuntzazko sekuentzienak eta abar egotziz; eskuinaldeari osotasunezko prozedurak, senezko edo intuiziozko prozedurak, prozedura artistikoak lotuko litzaizkioke.

Horrela, hizkuntzaren eskurapena eta gure eskolak lantzen dituen arlorik garrantzizkoenak garunaren ezkerreko hemisferioa lantzerantz bideratuak daude; esan gabe doa, gure gizartearen funtzionamenduan nabaria dela ezker alde horren agintea, eta gauzak ondo antolatu eta zentzumen kritikoa edukitzeko behar beharrezkoa dela ezin uka gainera. Baina irudimena gainbehera

daukan gizartean bizi gara, intuizioa edo sena gero eta ahulagoak diren gizartean. Beraz, garunaren eskuinaldearen lanketak egundoko garrantzia hartzen du egoera honetan.

Haurraren esan genezake garunaren eskuinaldea dela nagusi, eta poliki-poliki joaten dela ezkerraldea nagusituz. Nolabait, ezkerralde horren garapena, adimenaren garapenarekin lotua dago (adimena guk ezagutzen dugun moduan; alegia, koherentzia eta lotura edo kohesioa lortzeko ahalmena, operazio analitikoak eta paradigmaticoak egiteko ahalmena).

Arazoa da adimenaren garatze hori, garunaren eskuinaldearen betekizunak alde batera utziz bultzatu ohi dugula, nolabait alde hori ito bezala egiten dugula. Eta horrek gauzei bizitasuna kentzea dakar. Joera analitiko-paradigmatikoak, nolabait, heriotz joerak dira, gauzak geldiaraziz aztertu behar dituzte (nahiz sinkroniaren eta diakroniaren uztardura aldarrikatu, nahiz paradigmak osotasunaren arauera formulatu, disezio bat dago beti, era batera edo bestera); joera osatzaileak, berriz, joera biziak dira, prozesuaren eta mugimenduaren osotasuna interesatzen zaie (ibiliz goazenean, pausoak ondo neurtuz eta pauso bakoitza aztertuz joatea, edo hori gabe ibiltze hutsaren bizipena izatea; horra hor bi aldean adibidetzat har genezakeena). Heriotze-bizitze hori izango litzateke existentziaren sekretua.

Hizkuntza ikasterakoan, garunaren ezkerraldea indartzen ari gara, adierazpide hotz, heriotzezkoa lantzen. Baina hizkuntzaren beraren barnean hor daude bestelako indarrak ere; hizkuntzaren senaz, irudimenaz, adierazpide-indarraz, eta abarrez, hitzegiten dugunean, zertaz ari gara funtio poetikoaz ez bada?



Hizkuntza biziaren, senezko hizkuntzaren oinarrian, beraz, funtzio poetikoa ikusiko genuke (oso zentzu zabalean hartu; ez, noski, era espezifikoa). Beraz, hizkuntzaren garapenean, adierazpide beroa eta adierazpide hotza era orekatuan lantzea ezinbestekoa da hizkuntza horrek bizipen-indarra har dezan. Hizkuntza bere osotasunean eskuratzeko, ez da aski hizkuntzaren didaktika bat, testuaren legeak, kodearen legeak ondo ezagutu eta era efikazean erakusten baditu ere, adierazpen zehatz eta kohesionatua lortuz. Adierazteko modu hori nahiko aseptikoa gertatzen da (ez dago ezer zeharo aseptikoa denik baina); gauzak aztertzeke egokia beharbada, gaurko eskola teknokratikoari erantzuteke egokia beharbada, baina hotza, hila.

Gaurko gizakiak ametsaren eta intuizioaren prozedurak nahiko itxiak dauzka. Garunaren eskuinaldearen laguntzarik gabe, ezkerlaldekoaren lana antzu samarra bilakatzen da, bizi-indarririk gabea. Era berean, eskuinalde hori egunetik egunera blokeatuago, itxiago badago, bada, orduan gizakiaren sentipen-indarrak irtenbiderik gabeko ixtura batean jiraka ibiltzera kondentatzen ditugu. M. Fergusonen ustez, hizkuntzak lor dezake, hein handi batean, bi alde horien garapen orekatua; eta hori bultza dezaketen hizkuntzazko osagaiak, kantuetan, poesian, errezoan, eta abarretan aurki omen ditzakegu (mintzaira aseptikotik nahiko urrun, beraz).

Garunaren ezkerlaldeak gauzak mugatuz, paradigma logikoak osatuz jokaten du (gure eskolak etengabe lantzen duen arloa, hain zuzen). Eskuinaldeak, aitzitik, hedatuz, mugei kanpora eraginez, osotasuna bilatuz. Eskuineko garunarekin bide berriak bilatuz aritzen gara, sentituz, irudimena erabiliz, usnatuz... Ezkerlaldekoarekin, berriz, konprobazioak egiten ditugu, azterketak, eta bide berriei kontzeptu eta egiturak egokitzen dizkiegu. Beraz, bi aldeak biltzen ez dituen hezibidea,

“erantzun zuzenaren” atzetik dabilen hezibidea ez da batere osasuntsua gure haurrentzat.

Haurrak hizkuntza barnera dezake, bi alde horien funtzioak landuz. Noski, esango dugu, gure testuliburuetan ipuinak eta poemak ere ageri ohi dira. Baina, kurioa da testu horiek hizkuntza era analitikoan ikasteko erabiltzea; poesia edo ipuinarekin ez da bultzatzen bizipen estetiko osatzailea, baizik eta hizkuntzazko esamoldeak oso ondo landuak daudelako, hizkera aberatsa erabili ohi delako, eta eredu linguistiko horiek ikastearren. Ez gara jabetzen, nonbait, aberastasun hori bizikizun estetiko batetik sortua izan ohi dela, eta ez hitzen konbinaketa harrigarriak edo morfosintaxia aberatsa erabiltzetik. Bizikizunekin loturik ez dauden eginkizun komunikatiboak formulista hutsak dira, eta ez dute garunaren eskuinaldea iharrosten.

\*\*\*\*\*

Adierazpide beroa eta hotza aipatu ditugu. Argitu ditzagun piska bat bi horiek. Adierazpide beroa diogunean, barne-emozioak eta norberaren izaera osoa adierazpide horretan inplikatzeko direnean sortzen den mintzaira esan nahiko genuke. Dena dago tartean: gorputzaren jarrera eta mugimenduak, aurpegikera, doinua eta abar. Adierazpide hotza diogunean, berriz, kontzeptuaren bidez igorri nahi den mezua esan nahi genuke; gorputza, doinua eta abar, ahalik eta neutralitate handienera eduki nahi izaten dira horrelakoetan, mezuaren zehaztasunean jarriz ahalegina.

Noski, ez dago erabat hotz den adierazpenik, ordenagailu batena izan ezik; baina, adibidez, eskolan lantzen den adierazpen

berbalak hoztasun horretarako bidea bultzatzen du, zehaztasunaren eta zientziaren izenean (ikasleak zenbat eta helduago, orduan eta areago). Adierazpen hotz hori adierazpen intelektualetik hurbil legoke.

Haurren mintzamena, ordea, zenbat eta tikiago izan haurra, orduan eta beroagotzat jo genezake. Haurra bere barne osoa inplikatur mintzatzeko da: inplikatur du gorputza, jokuan jartzen ditu emozioak ere; bere izaera osoa jartzen du tartean. Eta heltzen doan heinean, adierazpen-une beroen eta hotzen arteko haustura handituz eta handituz joaten da, hasierako erabateko berotasun hura galduz. Haurtzaroko paradisia galtzearen irudiaren proiektioetako bat izan liteke hori.

Adierazpen poetikoaren alorrera gatzelarik, haurraren adierazpide beroa gorenean ezarriko genuke, haurrak bere izaeraren zokorik zirriararrenak ukitzen dituen arloarekin lotuz. Eta zenbait ikertzailei kasu egin behar badiogu, amandre ipuinen barruan aurki ditzakegu zoko horiek zirrararen jar ditzaketan hariak; amandre ipuinen poetikotasunez baterik egongo lirateke.

Funtzio poetikoa izaeraren eta adimenaren alde bat dela esan dezakegu, eskuineko garunaldearekin lotua, eta eginkizun osatzaile eta senezkoekin zerikusia duena. Ikuspegi osatzailea edo integrala landu nahi duen heziketa-planteamendu batek ezin alde batera utzi poesia, ezin erabili poesia ariketa analitikoaren morroi, adibide huts gisa, poesiaren izatea deuseztu nahi ezean behintzat (heziketaren eginkizuna garunaldearen ezker aldean gidaturiko giza 'status' baten zerbitzuan jarri ezean behintzat).

\*\*\*\*\*

Funtzio poetikoaren aldetik, analogia izango litzateke funtzio poetikoarekin loturik lihoakeen prozedura mentala. Koherentzia eta kohesio-prozedurak garunaldearen ezkeraldearekin harremanetan ikusten ditugu; eta testuaren batasuna bide paradigmaticoen bidez lortzen da; eta beharrezkoa du haurrak, adinean gora doan heinean, bere adierazmoldearen kohesioa gero eta zorrotzagotuz joatea. Hala ere, lan hori ezin ote liteke aurrera eramanez, haurrak lehen hain bizirik zeukan alde osatzaile hori ito gabe? Haurrak ttikitzen zeukan adimen analogiko indartsu hura ezin ote daiteke handitu bestearekin batera? Baietz iruditzen zaigu, eta beharrezkotzat jotzen ditugu horrelako planteamondeak, heziketa oso bat indartu nahi ezker. Eta musikarekin eta pinturarekin eta abarrekin batera lantzeko daukagu funtzio poetikoa, haurraren adimen analogikoaren adierazgarri paregabea bilakatzen dena.

Azter dezagun analogia pixka bat sakonagotik. Analogia adimenaren joera modutzat lehen mailakoa da, haurrak bere aro egozentriko edo berekoia igarotzen duen bitartean; lehen mailakoa da, halaber, idazkerarik eskuratu ez duten kulturetan.

Analogiak ez du bereizketarik egiten subjektuaren eta objektuaren artean; hots, subjektua inguruarekin bat egina sentitzen da. Bitxia da mistikoen ere batasun horretaz nola hitzegiten duten.

Analogiaren oinarrian korrespondentzia-sistema bat ikusi beharko genuke. Eta korrespondentzia-sistema horrek dakarren adimenaren garapen 'poetikoa' ez da berez arrazoiaren kontrakoa, paraleloa baizik. Logika eta analogia, adimena lantzeko bi bide osagarri izango lirateke.

Noski, logika garatu ez den eremuan pentsamolde animista garatzen da; ezaguna da, bestalde, nola animismoa haurren adimenaren garapen-aroa den, bere hasieran. Hala ere, haurrak prozedura analogikoak lantzeak, ez du esan nahi aro animistan ainguratuta geratuko denik.

Mary Ann Pulasky-k eskaini dizkigun haurren adimenaren garapenaren ezaugarrietatik, bi aukeratuko ditugu: alde batetik, aipatzen ari garen animismo hori, alegia, haurarentzat izakiak oro era berean direla bizidun (hala ere, badirudi gaur egun ez dagoela horren garbi bizidun-bizigabe bereizketa hori); adibidez, harri bati errieta egingo dio, trumoiia haserre egongo da, gizaki baten gisan. Bigarren ezaugarria artifizialkeria da (animismoaren joera bera izango litzateke oinarrian, alderantziz hartua); honen bidez, uste du haurrak izadiko izakiak ere gizon-emakumeek sorturikoak direla. Tximista norbaitek egiten du, haizea ere bai...

Octavio Paz-ek analogiari buruz diosku, analogia horren mitoan duela oinarri, eta erritmotik datorrela, alegia, agerpenez eta desagerpenez, heriotzez eta jaiotzez osaturiko denbora ziklikotik. Analogiatik dator denborarekiko ikuspegi borobila, gertakizunen eta izaeren paralelotasuna, ttikian gertaturikoa handian ere gertatzen dela uste duen pentsakizuna, irudimenaren eta 'errealitatearen' arteko lotura estua...

Haurrengan era ez konszientean dagoen prozedura honek inplikazio filosofiko zabalak ditu, eta denborari eta espazioari buruzko galdera daramate barruan. Analogia, bestalde, poesia iturri amaigabea da, pentsamolde arrazionalistaren bidez uki ezin ditugun eremuak ukitzeko bidea. Orain adieraziko dugun adibidea prozedura analogikoaren eredu izan liteke; adibide horren gaia ez da batere ezezaguna, zein filosofian zein

literaturan, barnekaldera amaigabe ttikitzen doanaren irudia baita. Amancio Prada-k kantatu ohi duen pieza batean agertzen da nola poetak bere bihotzean kaiola bat daukan, eta kaiola horretan nola txori bat ari den kantari, eta honen bihotzean nola beste kaiola bat dagoen, non beste txori bat ari baita kantari, noren bihotzean... eta txori guzti horiek kanta hau berbera kantatzen ari dira. Horrela, etengabe, analogiaz analogia, ezerezerako bidea adierazten zaigu, non (ezerez horretan) kantuak iraun egingo baitu. Ezerezaren bilaketa horren bestaldea, prozedura alderantziz erabilita, infinituaren bilaketa bihurtzen da, etengabe handituz. Infinitua eta ezereza, dena eta bat, analogiaren erreinuko osotasun-ikuspegiak.

Analogia, eta honen animismoa, hain txertaturik badago haurren adimenean, nahiko erraza da ikustea nola haurrak asko maiteko dituen errepikak eta paralelismo-prozedurak, forma aldetik; edukin aldetik, berriz, irudi analogikoetatik hasi eta, konparaketatik eta sinbolotik igaroz, metaforaraino iritsiko da.

Paralelismoak, errepikak, errima, eritmoa... ez dira haurrarentzat prozedura mnemotekniko soilak, nahiz horretarako ere baliagarriak izan; aitzitik, prozedura horiek haurraren pentsatzeko moduan txertaturik daude, bere adimenaren bideratzaile dira.

Analogiak egiteko, bestalde, edozein gauza erabil dezakegu; hala ere, eremurik emankorrena izadiak eskaintzen digu ezbairik gabe; izadiak, nolabait, denbora eta espazioa mugagabeak adierazten dizkigu, eta bizipen estetikoari infinituaren sakontasuna eskaintzen dio. Haurraren adimena horrela elikatzeak badu bere garrantzia. Eta, juxtu, bide honetatik irudi analogikotik sinbolorainoko bidea irekitzen zaigu, mendetan eta

mendetan jorratu izan den ildotik; sinbolismo horrek mitoen mundura eta historiaurreko jatorrietara garamatza; alfa eta omegaren jokua; nork esan du haur poesia azaleko gauza arinez hornitzen dela?

\*\*\*\*\*

Metaforaren eta konparaketaren alorrera joango gara hurrena. Poesia analogian hasten dela esan dugu, eta irudia izan ohi da analogia horren adierazpide. Janer-i jarraituz, irudiarekin bi erreferente harremanetan ezartzen ditugu, beren izenen bidez; irudi horren ondotik etor daiteke konparaketa, zein metafora, zein alegoria, zein sinboloa. Hala ere, badira analogikotzat hartu ohi ez diren irudiak, albokotasunaren edo hurbiltasunaren logikan (logikaurrean, beharbada esan beharko genuke) oinarrituak: metonimiaz eta sinekdokeaz ari gara. Hain zuzen, Pulasky-rekin batera esan dezakegu, haurraren logika-zantzuak hortxe hasten direla, albokotasunetik alegia, hurbiltasunetik, gertuko harremanetik, berehalako ondoriotik (“eroriz gero, mina hartzen da” bezalako proposizioak). Haurraren konparaketa logikoa landuz, logika-bideak zabalduz eta indartuz joan gintezke; oso bide egokia dirudi horretarako. Hala ere, hori arlo bat besterik ez da; badirudi funtzio poetikoak simila majiara gehiago hurbiltzen duela, barne-zirrarak adierazten, analogiak osatzera; horrela, konparaketaren indar sortzailea eta bizi-indarra gehituz.

Metonimia (objektu bat beste baten izenez adieraztea; aurretik bien artean harremana dagoelarik) oso gustuko du haurrak, eta nolabait hizkuntzaren adierazpide-ahalmena zabaltzeko prozedura emankorra dela esan genezake (adibide arrunt bat jartzeko, haurrak astoari “arre, arre” deitzen dionean, metonimia egiten ari da, zeren, astoa mugi dadin astozainak esan

beharrekoa asto hori izendatzeko erabiltzen baita; baina astoak eta berau aipatzeko metonimiak alboko harremana gordetzen dute.

Sinekdokea ere berdintsua da: objektu bat, berak barnean daukan zati baten izenaren bidez izendatzea, nahiz alderantziz; adibidez, haurrak kotxeari “ttuttu” deitzen dionean, nolabait kotxearen parte den zerbaiten onomatopeiaz baliatzen da kotxe osoari deitzeko.

Beraz, poesiaren baliapidetzat sarri erabili ohi diren esanahi mailako baliapide horiek, haurrak bere hizkeran bertan txertaturik dauzka mintzatzen hasten denetik. Hala ere, ez genituzke ikusi behar baliabide horiek hizkuntzaren garapenaren prozesu hustzat. Janer-ek dioenaren antzeko zerbait legoke hor; autore honek dio, poesia modernoarentzat irudia ez dela joera erretoriko hutsa, baizik eta horren bidez goi-mailako errealitatearen atea irekitzen saiatu nahi duela (goi-mailako errealitate hori, errealitate psikikoari nahiz izpiritualari legokioke, esan beharrik ez dago).

\*\*\*\*\*

Similarren eta metaforaren artean badago, bestalde, halako parekotasun bat: erreferenteari buruz asoziazio ezezagunak egiten ditugu, irudimena bultzatuz. Prozedura horien bidez, adimenari eremu amaigabeak irekitzen zaizkio, zeren harreman berri horien bidez erreferente berrien bila hasten baikara, edo erreferentearen alde, funtzio eta harreman berri eta ezezagunen bila hasten baikara.

Janer-ek eta beste zenbait autorek metaforaren eta similarren artean oinarrizko desberdintasun bakarra ikusten dute: batean



agerian uzten da erreferentearen eta hitzaren arteko korrespondentzia (similean), eta bestean ez (metaforan). Eta teknikoki horrelatsu dela ez dago ezetz esaterik. Baina poesia teknikatik harantzago hasten da. Metaforak, esan daiteke, beste errealtate batean sartzen gaitu zuzen-zuzenean; aldiz, konparaketak, esplizitazioaren bidez, honantzako erreferenteari lotuta mantentzen gaitu. Bi prozedura horien oinarrian analogia dago (ez beti, ordea; konparaketa eta metafora erabat logikoak osa baitaitezke), baina konparaketatik metaforara badago jauzi bat, eta haurraren adimenaren garapenean aurrerapauso bat suposatzen du (iruditik sinilera, similetik metaforara, bien bitartean sinboloaren osakuntza eta trataera dagoelarik). Esan genezake sinboloa hasiera-hasieratik dagoela haur poesian, nahiz ezkutuago nahiz ageriago (adinaren aurreratzearekin), baina metaforarekin hartuko luke bere indar barneratzaile sakonena, ezaguera-mailan aurrera eginez. Hala ere, sinboloaren ezaguerazko erabilpenak nolabaiteko garapen intelektuala eskatzen du, erabilpen totemiko hutsean ez geratzekotan.

Janer-ek metaforaren kokaguneak poesiatik atera eta diseinura, musikara, jokuaren mimikara, antzespenera eta abarrera hedatzen ditu, eta era berezian esperientzia poetikoan, erlijiozkoan eta amodiozkoan. Esan genezake, metaforaren prozedura mintzatzearekin lotua dagoela, eta batez ere funtzio poetikoarekin, baina bizitzaren arlo guztietara hedatzen dela, azken batean adimenaren osagai bihurtzeraino. Mintzaira metaforikoak gizakiaren barne-mundu eta kanpoko harremanetan jartzen ditu, hizkuntzaren eginkizun denotatiboari konnotazio-indarrak erantsiz. Azken batean, zer da hizkuntza baten sena konnotazio indarra baino? Hain zuzen, eskolan gero eta falta handiagoan daukagun gauza.

Janer-en hitzetan, metaforak adimena ezagutza-bide berrien bila jartzen du; egiatzat ezin eduki aztertua izan daitekeena bakarrik; metaforak ezagutza intuitiboa lantzen du, azterketa zehatza baino harantzago joan nahian; ezin omen dugu metafora esanahiaren “transfert” hustzat hartu, errealitatera hurbiltzeko modutzat baizik, ezagutza-modu berritatzat, horrela gizakia komunikazio-aukera berrietara bultzatzen duelarik.

Honela laburtzen digu Janer berak irudiaren bilakaera haurraren: Hasieran animismoa legoke, metaforizatzeke modu primitibo gisa; errealismo nominala deitzen diona gainditzen deneko adina zazpi urte inguruan ezartzen du, eta orduan sortzen omen da gertu samar leudekeen bi osagai batean biltzeko ahalmena; hasieran subjektibitatea eta animismoa dira nagusi, eta poliki-poliki abstrakzioarako bidea jorratzen joaten da. Nerabezaroari dagokionez, Janer-ek ez du aro hori metaforarentzako oso aldekoa ikusten; nerabeak nahiago izaten omen du denotazioa, errealitatearen islapen zehatza; metaforak beldurra ematen omen dio, bere barneko intimitatean kanpoko zerbait sartzearen beldur omen da...

Nerabezaroarekiko ikuspegi hori beharbada pittin bat auzitan jarri beharko genuke. Metaforaz esandakoaz aparte, nerabezaroa zerbait baldin bada, poesia intimistaren aroa da; aro honetan ni-aren berraurkiketa bat legoke, sexualitatearen piztearekin batera. Maiz gertatzen da, ni-aren ikuspegitik abiaturik, poesia existentzialista sortzea; nerabeak nia-ren eta inguruaren arteko harremanean dimentsio berriak eta bere buruarekiko askoz ere autonomoagoak aurkitzen baititu. Pentsamendu logikoa indarrean gara daitekeen aroa da, bestalde, eta, noski, egon daiteke aro majikoarekiko halako arbuio bat (tartean metafora eta analogiaren arloa harrapatuz); gertatzen dena da poesia

egiteko modua aldatzen dela, adimenaren garapenaren ildotik. Hala ere, badirudi inoiz baino garrantzitsuagoa izan daitekeela eskuineko garunaldearekin loturik dauden ahalmenak lantzen segitzea, aro majikoarekiko haria zeharo etenik ez uztea (gero hari horren bila ibili ohi gara, beharbada, bizitza osoan), adimenaren garapenean ezker aldeko garunaren hazkunde desorekatuegia gerta ez dadin.

Janer-ek dio nerabeak bere barne-mundua aurkitzen duela ezaguera osoz, eta horren haritik sortzen dela adierazpide denotatiboa, errealitate zehatzari lotua; baina adierazpide poetikoak ere hor jarraitzen du nolabait, sentipenen munduari lotua orain. Bereizketa hori orain sortzen omen da (lehenagoko adinetan zailagoa zen, haurraren adimenaren sinkretismoa dela eta, subjektuaren eta objektuaren arteko bereizketa egiteko ahalmenik eza dela eta). Orduan, nerabeak aukera egin behar omen du, eta adierazpide metaforikoak bere barneko intimitatea agerian uzten omen dio.

Pedagogian metaforak hedapen handia izan zuen pentsakera majikoz antolaturiko gizarteetan, hemengo mundua eta haranzkoa bateraturik tratatu izan dituzten kulturetan. Gaur egun, espezializazioak eta teknologiak metaforari eginkizun orokor hura galdu erazi egin diola dirudi (hala ere, gaur indarra hartzen hasita daude berriro kontrako jarrerak); metafora bera, azterketaren ondorioz, teknologikoki sailkatua izan da, eta erabilpen pedagogiko eraginkor baten harian lantzen hasiak dira. Ildo horretatik doa sinektika deritzon disziplina.

Rodari-k fantasiaren gramatika deskribatu zuen bezala, W.J.J. Gordon-ek metaforaren gramatika antzeko bat deskribatu du, sormenaren teknologia aztertu nahian, pausoz pauso, eta

ondorioak kuantifikatu ere egin dituzte (metodo ‘zientifikoak’ erabiliz), metafora guregan gizarte zaharretan bezain eragingarria eta hezitzailea dela erakutsiz. Metodo horren oinarrian dagoen asmoa da sormenak erakusten dituen alde irrazionalak era lagungarrian erabiltzea, horrela sormen hori areagotuz.

Gordon erakunde industrialeen barnean hasi zen sormen-taldeak antolatzen, arazoak konpontzeko zein produktuak garatzeko helburuarekin. Hurrena metodo hura eskolarako egokitzen hasi zen, sormena eguneroko bizitzan etengabe behar dugun ahalmena dela adieraziz. Metodoaren helburua eskolan arazoak konpontzeko gaitasuna gehitzea da, eta adierazpide sortzailea lantzea, enpatia lantzea, giza harremanetarako sena lantzea.

Gordon-en ustez, sormen-prozesua ez da batere misteriozkoa; erraz deskriba daiteke eta ez da zaila pertsonak entrenatzea beren sormenaren hobetzeko. Artea sortzen duen adimena eta zientzia sortzen duena oso parekoak iruditzen zaizkio, eta era berean bakoitzaren pentsamolde sortzailea eta taldearena; beraz, sorketa ez omen da inondik ere sakoneko esperientzia pertsonala. Sormenaren oinarrian osagai irrazionalak daude; arazoak konpontzeko irtenbide arrazionalak eman behar omen dira, baina irrazionaltasunak ideia berriak sortzeko aukera sortzen du.

Metodoak zenbait teknika lantzen ditu; alde batetik, metafora, gauza ezaguna ezagunarekin lotuz, eta alderantziz, horrela ezagutza-prozedura berriak bultzatuz; bestetik analogia, zein pertsonala (gauzen barnean sartzea irudikatu eta enpatiaz haiek bezala funtzionatu, nolabaiteko prosopopeia sortuz: “nola

moldatuko nintzakete molekula banintz”, adibidez), zein zuzeneko (izadiko gertakari bat, adibidez, egoera tekniko bati aplikatuz; buruaren funtzionamendua aztertuz, ordenagailuak hobetu, esate baterako), zein gatazka erakoa (kontraesana bilatuz etengabe).

Metodologia guzti honi oso bide estimulagarriak ikusten dizkiogu heziketa-munduan lantzeko. Arteari dagokionez, ordea (eta, azken batean, heziketaren muinari), ez zaigu iruditzen ez metodo hori ez beste ezein iristen denik artearen erdigunea deskribatzera. Damaso Alonsok zioen, eta Gordon baino eskarmentu handiagoz, artearekin egin dezakeguna, gehienbat, biran ibiltzea dela, ahalik eta zirkulurik hertsienak egiten saiatuz; baina, inola ere ez garela iritsiko puntu zentrala ukitzera. Gordon baino lehenago hainbat eta hainbat aritu izan da kritika literarioan; lan horien guztien ahalegina ikusi eta gero, norbait etortzea esanez sormen-prozesua erraz deskriba daitekeela, xinglekeria harrigarria iruditzen zaigu. Honekin ez dugu esan nahi metodoa baliagarria ez denik, baina ez dezala uste formula horrekin bakarrik artea egiteko gai den jendea heziko duenik (ezta eguneroko arazoak konpontzeko ere). Bestalde, metodologia oro arrazionaltasunean oinarritu ohi da; beraz, arrazionaltasunetik irrazionaltasuna deskribatzean, alde asko eta asko geratuko dira kanpoan; gainera, arrazoiaren areago doan zerbait ez da beti irrazionala, arrazoiaren kontrakoa.

Horrelako metodologiek, bere lekuan ez jarritz gero, mekanizismora bultza dezakete haurra (kontrakoa aldarrikatuz ari diren bitartean). Bestalde, bizikizun estetikoa erabat pertsonala da gure ustetan; taldean elkarrekin bizi daitezke gauzak, elkarrekin landu, komunikazioa sortu; baina, estetikaren zirrara bakoitzak hartzen du bere barnean, besteek ez bezala;

bizikizunak transferiezinak dira, nahiz bakarrik egon nahiz taldean egon.

Egia da pentsakera analogikoak eta metaforikoak joera oso kreatzaileak bultza ditzaketela giza arazoan aurrean, eta puntu hori heziketa-mailan oso garrantzizkoa dela; baina gizartearen arazorik garrantzizkoena ez da beharbada irudimenez beteriko buruak edukitzea (hori oso lagungarria izan litekeela nork uka, ordea), beharbada arazoaren oinarria etikoa da, eta beharbada arazoaren muina zenbaiten ustetan izpirituala da.

Metaforarekin jarraituz, honek badu inimizazioaren munduarekin zerikusirik; mundu ezagunetik ezezagunera garamatzalarik etengabe, bada, ez ote zaigu ari proposatzen bizitzaren bidaia? (zeren, zer da bizitza, denbora ezagunetik ezezagunerako pauso geldiezina baino?). Bidaiaren metafora oinarrizko bilakatzen da bizitzarekiko ikuspegi orokorrak lantzerakoan (amandre-ipuinek, azken batean, bidaia inizatikoak adierazten dituzte); metafora horrek egundoko indarra hartzen du nerabezaroan, gaztea aro horretan bizitzarantz abantara osoan katapultatua sentitzen baita.

\*\*\*\*\*

Heziketarekiko loturan, behin eta berriz aldarrikatu dugu poesiaren majikotasuna, batez ere bizi dugun egoera ikusirik. Berez, ordea, ez litzateke orekatua bide horietan jartzea indarririk handienak. Majikotasuna eta lirismoa, nolabait, mistikarekin eta behetik gorako joerekin harremanetan daude, eta dimentsio hori da gaur egun galduxa daukaguna. Horrek ez du esan nahi, ordea, beste dimentsioa, dimentsio horizontala arbuia behar dugunik; eta dimentsio hori lantzeko biderik osasuntsuena

umorea iruditzen zaigu; umoreak eramaten gaitu bizitzaren dimentsio laura, apalera; altura asko hartu nahi denean, irribarre pixka bat egitea komenigarria da, benetan oinak non dauzkagun kontura gaitezen. Eta umorearekin ere badute zerikusirik simil-ak eta metaforak, sinekdokeak eta metonimiak; ordea, hortik atera ohi den irudiaren indarra logikari loturik egon ohi da; askotan logika hori hausten da ezustea sortuz; baina erreferentzia logikoa da, nahiz kontrako bidetik erabili; noski, logika hori, zenbat eta haur ttikiagoekin aritu, orduan eta xinplegoa izan da (albokotasuna aipatu dugu).

Umorearekin barre egiten diogu inguruari, gauzak bere ohizko eginkizunetik aldendu eraziz; erlatibizatze-lanaren hasiera polita izan liteke hori. Umore hori ironia ere bihur daiteke, zorrotasun kritikoa eta erlatibizatze-lan hori gehiago sakonduz.

Barne-munduaren hezibide osatzaile batek, goitik beherako bideak eta bide etzanak, biak eduki behar ditu kontutan, era orekatuan. Hala ere, oreka osorik ez dagoela badakigu, bi indar horien gurutzaketaren erdigunea ezereza bestetik ez baita. Bizitza etengabeko mugimendua da, eta mugimendua sortzeko desorekak behar dira.

\*\*\*\*\*

Poesiaren lanketa liho lanarekin parekatu dugu, inoiz erabat osatzera iritsiko ez garen oihalarekin. Lanketa horrek tresna eta leku bereziak behar ditu. Zumtho-ek 'locus amoenus' bat beharrezko ikusten du poesiarentzako; leku egoki hori, ordea, batez ere norberaren barnean prestatu behar da. Honekin esan nahi dena da, haurrari barnea gozaten eta prestatzen ez bazaio,

zaila izango dela, barne-leku egoki hori gabe, poesia dastatu ahal izatea.

Eta poesiari barnean lekua egokitu behar zaion bezala kanpoan ere komenigarria da hori egitea. Ana Pelegrin-ek didaktika- eta metodologia-mundutik aldentzea eskatzen du poesia; poesiarentzat denbora eta espazio izpiritual bereziak eskatzen ditu, barne-jarioari bideak era egokian irekitzearen. Poesiaren txokoa, ipuinarenaren ondokoa da, pinturarenaren ondokoa, musikarenaren ondokoa, jolasarenaren ondokoa.

Poema eder batek ez du mundua konponduko, baina ederragoa egingo du behintzat, salbuespenak salbuespen eta penak pen.



# HAUR LITERATURA ETA GIZARTEA

*Manu López Gaseni*



Mintzaldi txiki hau ematera puntua jarrita natorrela esan daiteke. Antolakuntzatik “Haur literatura eta gizartea” titulu hau proposatu zidatenean, *Borroka Arroka* nire azken liburuaren gaiagatik izango zela bururatu zitzaidan. Kasualidadez, gai horretaz, eta gai hori aitzakiatzat hartuta beste zenbaitetaz ere badut zeresanik.

Adibidez, zentzu bihurrian hartuta, esango nuke haur literatura gizarteak asmatu merkatua dela. Edo, bestela esanda, gizartearen beharretara makurturiko jenero bat. Ez dut esango existitzen ez denik; izan, bada. Baina, gutxienez “literatura” hitzaren zentzua zehaztu egin beharko litzateke, eta “irakurgaia”ren esanahira mugatu. “Haur irakurgaiak” esan beharko genuke, gure aurreko idazle batzuek, ez gu bezain pretentzioso eta marketing-zaleak, egin zuten bezala.

Izan ere, literatura, nik ulertzen dudana bezala, gozamen estetiko batekin zerikusia daukan aldetik, ez dago argi eta garbi haurren buruetan. Inoiz ez dut esango “Haur literatura” deitzen den horren atzetik literaturarik ez dagoenik, horren zati batean bederen. Esan nahi dudana da haurrak ez duela hori literaturatzat hartzen.

Puntu honetara iritsita, uste dut gauza gehiegi geratu direla argitzeke, nahiz eta beharbada hau ez den guzti horretaz hitz egiteko tokirik aproposena. Baina aipatu egingo ditut: esaterako, argitu beharko litzateke zer izkutatzen den “haurra” deituraren atzetik, zeren eta, galdetzen hasiz gero, liburuzaletutako haur askoren adibideak ager baitaitezke, baina jeneralizazio batera iritsi nahi izanez gero, haurrak, orohar, ez duela osagai literarioa bereganatzen erabaki beharko genuke. Antzeko beste puntu ilun

bat zera da: haurra noiz arte den haur. Hor ere badira teoria psikologikoak, baina adostasunak tarte handiegiak uzten ditu: hamahiru, hamalau, hamabost urte.

Haur literaturaren inguruan egin diren teorizazioetan puntu inportante bat onartzen da: beste jenero edo azpijeneroak forma edo tematikagatik definitzen badira ere, haur literatura definitzeko kontutan hartzen den elementu bakarra hartzailea da, haurra bera. Haur literatura, horren arabera, haurrak irakurtzen duen guztia izango litzateke.

Hala ere nire ustez, orain arte ez da saio bat ere egin “haur literaturazko testuetatik” haurrak zer eta nola ulertzen duen jakiteko, eta aldez aurretiko baldintza hori gabe itsu-makilkadaka arituko gara etengabe.

Zeregin horretarako, Errezeptzioaren Estetika deritzon korrante kritikoak tresna teoriko aproposak eskaintzen dituela uste dut. Literaturak, komunikazio-mota berezia den aldetik, bere helburua beteta ikusiko luke irakurleak idazlearen asmoen intepretazio onargarria egiten duenean. Horretarako, jakina, literaturak baditu bere lege bereziak, idazleak eta irakurleak ezagutu eta konpartitu behar dituztenak, literatura deitzen duguna literaturatzat irakurria izan dadin. Arazoa zera da: haurrak ezagutzen al ditu lege horiek? Edo beste hitzetan esanda, ba al dauka gaitasun estetikorik? Nolakoa? Ikuspuntu horretatik abiatu beharko genuke aurrerantzean.

Bitartean, haur literaturaz baino gehiago, Juan Cervera ikerlari interesgarriak, nahiz batzutan epelak, proposaturiko “mugako literaturaz” interesaturik nago. Gauza jakina da haur literaturaz hitz egitean haur eta gazte literaturaz hitz egiteko

akordiora iritsi dela, elementu anbiguo berri bat gaineratuz. Badago, bai, haurrentzat izan gabe helduentzat ere idazten ez den literatura-mota bat, mugakoa, beste bien arteko tokia betetzen duena. Cerverak berak aipatzen ditu gai eta gustu aldetik ematen diren aldaketak, eta hemen badirudi, eta psikologia ere bat dator, gazte egin den haur horren heldutasun psikologikoa medio, nerabea gai dela alderdi literarioaz jabetzeko. Besteak beste, bere esperientzia literarioa handiagoa delako. Oraindik ere, nire ustez, pisu handia dauka argumentuak, baina bestelako elementuek nagusitasun handiagoa hartzen dute. Suposizio guzti hauek ere, jakina, praktikan frogatu beharko lirateke.

Orain arte esandakoa, gaia aitzakiatzat hartuta, kezkatzen nauten alderdi teoriko batzuren azalpena izan da.

Aurrerantzean, “mugako literatura” horretatik abiatuta, “Haur literatura eta gizartea” tituluak izan dezakeen beste interpretazio batera pasatuko naiz. Jakina denez, gazte literaturaren alorrean azpijenero desberdinak landu dira narratibaren barruan. Abenturetatik hasi eta zientzi fikzioan bukatu, fantasia, misterioa eta detektibetakoetatik pasatuz. Baina bada jenero bat betidanik interesatu izan zaidana: errealismoa. Eta horri nahi diren adjektibo guztiak jarri ohi zaizkio ikuspegiaren arabera: kostunbrista, naturalista, soziala, zikina,...

Gazte literaturarako interesatu zaizkidan iturriak ez dira berriak, eta Iparramerikatik datoz. Lehengoa 1945ean publikatu zen lehenengo aldiz, eta berriki egindako itzulpenari esker izen berria dauka euskaraz: *Zekale artean harrapaka*. Salingerren nobelari deitura jarri behar izatekotan, errealismo zinikoa deituko nioke nik. Narrazioa azkarra da, oso hurbila, barnetegi

batean ikasten duen mutiko errebelde batek kontatua. Eta lehenengo esaldian jadanik kokatzen ditu narrazioaren koordenatuak, beste errerealismo-mota bati kontrajarriz: “Hau benetan aditu nahi baduzue, lehenengo zera jakin nahiko duzue beharbada, non jaiotzen nintzen, eta nolakoa izan zen nire haurtzaro kaxkarra, eta zertan ari ziren nire gurasoak eta hori dena ni jaiotzen aurretik, eta David Copperfielden antzeko kakazahar guzti hori, baina ez dut gogorik horretan sartzeko”. Beraz, lehenengo abisua: hau ez da David Copperfield! Kasualidadez, literaturak horrelako kasualidadeak izaten ditu, protagonista eta narratzailearen izena Caulfield da. Liburua segida batean irakurtzen da, etengabe botatzen diren irreberentzien aurrean parrez gainezka. Inor ez du barkatzen Holden Caulfield gazteak, eta estetika iparramerikar osoari sekulako erreposoa ematen dio. Benetan hori bezalako liburu gutxi irakurri dut nik.

Bigarren iturria bikoitza da, Susan Hinton-en bi liburuak, alegia. Lehenengoa 1967an argitaratu zuen, hamazazpi urte zeuzkala: *Errebeldeak*, edo “Baztertuak”. Bertan, koadrilen arteko liskarrak narratzen dira. Koadrila paradigmaticoak dira: aberatsen seme-alabak batetik, eta baztertuak bestetik. Klase-borroka, azken batean. Eta tartean, adiskidetasuna, elkartasuna eta maitasuna bezalako sentimenduak ageri dira nonahi. Horrelako estetika eta gaia sarritan erabiliak izan dira, baina nobela hori da adierazgarri nagusia beharbada “West Side Story” antzerki-musikalarekin batera. Susan Hinton-en bigarren liburua, *Kaleko Legea*, 1975ean argitaratu zen. Idazlea helduago ageri da, eta liburua bera trinkoagoa. Garaiak aldatu dira: koadrila-giroa bukatu egin da eta droga da nagusi. Lehengo idealismoaren aurrean, oraingo pragmatikotasuna. Pertsonaiak urrunagoak dira, arketipikoak: Rusty James, narratzailea, eta bere anaia nagusia, “motorreko mutila”, urrutitik datorrena eta

dena dakiena. Hemen, Rusty James-en inimizazio-prozesua narratzen zaigu: bere anaia idolatratuari begira bizitzetik, bere kabuz bizi behar izatera. Iraganetik bizitzerik ez zegoen jadanik, eta orainaldiko errealitate gogorrari aurre egin beharra dago.

Garaiak aldatu egiten dira, baina gazteen arazoak antzekoak izaten dira beti. Kontua da guzti horri forma literarioa ematea, gure kasuan, hemen, Euskal Herrian. Eta horretarako eszenario egokiak bilatu behar dira. Nire kasua aipatzeagatik, Ibarrekerra iruditu zitzaidan egokiena *Borroka Arroka* kokatzeko. Batetik, ondo ezagutzen dut, eta bestetik, ingururik marginalena da, zentzu batzuetan: Euskal Herriko barrutian erdaldun eta ezezagunena beharbada; kultur kriseilua da, eta Bilbo hiri industrial eta aberatsaren suburbioak, surroundak, uribeak dira. Gainbehera datorren industriak utzitako hondakinak dira, bertan bizi diren giza-hondakinekin batera. Horregatik niretzat inguru hori ez da Bilbo, inondik inora, Balkobilko baizik, eta ezin da Euskal Herriko beste industriguneekin konparatu (Pasaia, Laudio, Iruñerria,...) Nire saioa hauxe izan da: testuinguru horretan gazteen istorio bat kokatzea, baina betiere eszenarioaren ezaugarriak azpimarratuz.

Bi ardatz hauen artean trabeskaturik, haur literaturaren gaineko gogoeta eta errealismoa soziala gazte literaturan, hemen amaitzen da udako eskolatxo hau. Eskerrik asko.

**MEZU IDEOLOGIKOAK  
HAUR LITERATURAN**

*Mariasun Landa*



Ikuspuntu askotatik azter dezakegun gaia da gaurkoa. Hain zabala eta sakona denez, gaia mugatzeko beharrea aurkitzen gara: **ipuin harrigarri tradizionalen ideologia sexista** izango da, hain zuzen, ikutuko dugun aspektua. Mugatze honek beste murrizketa bat egitera behartzen gaitu, ilustrazioak berak haur literaturan bideratzen duen mezu ideologikoa baztertzea alegia... Gai honek hitzaldi berezia eskatuko luke, haur literaturan ilustrazioak duen garrantzia aparta delako, zenbait kasutan testua baino sexistagoa da eta.

Gogoratu beharra dago ere, haur literaturak betidanik izan duela definizio arazoa: haurrentzat idatzitako literatura al da? Haurrek bereganatu duten literatura al da? Haurrek egin duten literatura al da?... Felicidad Orquin-en ustez, haur literatura, gaur ezagutzen dugun moduan, haurren eskolarizazioarekin hasten da eta burgesiaren haurtzaroaren kontzeptuarekin lotuta doa. Erakunde eskolarrak eta familia nuklearrak nagusien mundutik aparteko esparru berriak sortzen baititu haurrentzako. Ordura arte, haurren irudimenak ahozko tradizioetik edan zuen eta hasiera batean denontzako ziren ipuin harrigarriak haurrek bereganatu zituzten, 1697an Frantzian Perrault-ek bildutako ipuin tradizionalekin gertatu den bezala...

Ipuin harrigarri eta tradizional ezagun hauen sexismoa aztertzen hasiko gara orain, gaurkotasun izugarria baitute oraindik eta askotan beren balio pedagogikoa zalantzan jarri delako, ez ordea beren balio literarioa.



## **1. EMAKUMEAREN IRUDIA IPUIN HARRIGARRI TRADIZIONALETAN**

Ipuin harrigarri tradizioaletako emakumezko protagonistak hauexek izan ohi dira nagusiki: **maitagarriak** edo hadak, eta **sorginak**. Baina oinarrizko ezberdintasun bat dago hauen artean:

- sorgina bilakatu egiten da sorgin
- maitagarria, berriz, jaio egiten da.

Hau da, sorginek beren burua sorgin izateko ikasi, prestatu beharra dute, beraz, maitagarriak edo hadak baino ahulagoak dira. Maitagarriak, mesedea egitean, ez du ezer galtzen edo irabazten, ez du zigorrik ez saririk jasotzen; sorginak, aldiz, ekitea, oker-jokatzea, heriotzarekin ordaintzen du. Maitagarriak, edertasun eta ontasunaren paradigmak dira, sorginak, ordea, gaiztotasunaren paradigmak dira. Ipuin harrigarri tradizioaletan emakumearen irudiaren bi alderdi nagusiak sorgina eta maitagarriena direla esan dezakegu.

Hala ere, ipuin horietan beste pertsonaia nagusiak ere agertzen dira: **printzesa**, **erregina** eta **amordea**, besteak beste. Goazen pertsonaia hauen ezaugarriak gertutik aztertzeraz:

1. Printzesa. Maitagarria bezala, edertasunaren sinboloak dira, baina hilkorrak. Ez dira maitagarriak bezain ahalguztidunak, beraz.
2. Erregina. Kontaketa tradizioaletako pertsonaiarik iragankorrenetarikoa da, “mater genitrix” soila, alegia, bere rola laburra eta akatsik gabekoa baita: haurra munduratu eta hil egiten da, kontaketatik desagertuz.

3. Amordea, berriz, bizi izaten jarraitu duen emakumea da. Denborari, zahartzaroari eta seme-alaben hoztasunari aurre egin beharko diona; edertasuna eta senarraren maitasuna galduko duena. Pertsonaia latza, inperfektoa, baina guztiz erreala.

Printzesaren irudia maitagarriaren iruditik oso gertu dago; amordea, berriz, sorginaren iruditik. Eta mutur bi hauen artean, erregina.

## **2. JARRERA ETA PATU EZBERDINAK SEXUEN ARABERA**

Beste aldetik ere, esan beharra dago, ahozko ipuin tradizional hauetan sexu araberako jarrera eta patuak oso ezberdinak agertzen zaizkigula...

Har ditzagun, adibidez, Perrault-ek eta gero Grimm anaiek jaso eta idatzi zituzten ipuin ezagunak: Txano Gorritxo, Erpurutxo, Mari Errauskin, Edurne Zuri eta abar. Ipuin hauek kultura ezberdinetan aurkitzen diren ipuinak dira, balio unibertuala dute eta ahoz eta mendez mendez transmititu dira. Mari Errauskin-en 345 bertsio edo moldaketa ezagutzen dira, mendebaldean eta ekialdean, eta horrek adierazten digu Mari Errauskin-ek azaltzen digun emakume irudia, etxekoandre apalaren irudia alegia, oso hedatua dagoela. Ipuin hauetan neska eta mutilen patuak edo destinoak oso ezberdinak direla frogatzeko **Vladimir Propp**-ek egindako azterketara joko dugu: **“Ipuinaren sustrai historikoak”** liburuaren arabera, ipuin harrigarri hauek beraien aurreko kontzepzioaren irudiak dira, mitoaren arazoiketak dira, pubertarotik heldu izaterako erritoak adierazten dituztelarik.

Eta aintzinean ipuin horiek horrela ulertuak zirelako seinale dugu Perrault-ek Txano Gorritxo ipuinaren amaieran idatzi zuen moraleja, gaur egun edizio gehienetan aipatzen ez dena:

“Hemen ikusten da, mutilek eta itxura oneko neska politek batez ere, gaizki egiten dutela edozeinekin hitz egiten egotean, eta ez dela harritzekoa otsoak horrenbeste jatea. Baina, otso guztiak ez dira berdinak. Badaude nesken atzetik ibiltzen diren umore onekoak, ondo hezituak, atseginak. Baina, kontuz gozotasunez agertzen direnekin! Horiek dira gaiztoenak eta!”

Ipuin horiek adierazten dizkiguten errito inizatikoak, ordea, oso diferenteak dira sexuen arabera. Basoa bada, Propp-en iritziz, pubertarotik heltzarora pasatzeko espazio mitikoa, basoan galdu eta hil egiten da Txano Gorritxo, Perrault-en bertsioan, edota Grimm anaien bertsioan, ehiztari batek salbatzen ditu bera eta amona otsoarengandik. Basoa, beraz, heriotzaren espazioa da Txano Gorritxorentzat.

Erpurutxoren kasuan, berriz, pubertarotik heltzarorako pasabide inizatiko hori askoz arrakastatsua da: basoan galdu, ogroaren botak (sinbolo sexuala) lapurtu, eta guraso onen ondora itzultzen da bere anaiatxoak salbatuz.

Askotan ere, pubertarotik heltzarora pasatzeko errito inizatiko sinboliko honek beste forma bat hartzen du nesken kasuan: Vladimir Propp-ek “neska bat hilkutxan” deitu ziona. Neska izatetik emakume izatera heriotza baten forman agertzen zaigula alegia. Heriotza bera aurkitzen dugu Loti Ederra eta Edurne Zuri ipuinetan... Heriotzaren forma hartzen duen pasibotasun hori gorputzean sartutako gauza batengatik datorkie:

ardatza, Loti Ederraren kasuan eta jandako gauzengatik, sagarrarengatik, Edurne Zuriren kasuan...

Heriotzaren aurreko pasibotasun hau, emakumezko pertsonaiek erakusten dute beti. Hau da, nesken kasuan, pubertarotik heldutasunerako bidea pasiboki bizi izaten da. Mutilen kasuan, aldiz, heldutasunerako bidean, ekintza da nagusi, asmakizun edo enigmak gaindituz, baso sinbolikoa garaile bezala pasatuz heltzen dira gizonezkoak izatera.

Mezu sexistak ugari dira ipuin harrigarri hauetan. Edurne Zuriaren kasuan adibidez, argi eta garbi azaltzen zaigu hasieran aipatu dugun emakumearen irudi bikoitza: ama/amordea; maitagarria/ sorgina... Baita emakumearen narzismoa ere, edota emakumeen arteko lehia. Barne- eta kanpo-esparruak oso markatuak agertzen zaizkigu emakumezkoen kasuetan, eta hori frogatzeko nahikoa da Edurne Zuriri nanoek beraiekin geratzeko jartzen dizkioten baldintzak gogoratzea: etxea zaindu, oheak egin, arropa garbitu eta josi, dena txukun eta garbi edukitzea... Eta batez ere, etxetik ez ateratzea!

Hau da, hurrek ipuin hauek entzutean edo irakurtzean erraz ulertzen dutena zera da: emakumeari barne-espazioa dagokiola, kanpoko espazioa debekatua dagoela, gizonezkoari bakarrik dagokiola alegia.

Felicidad Orquin-ek ematen dituen datuen arabera, Grimm anaien ipuinetan pertsonaia negatiboen % 80a emakumezkoa da.

### **3. ZER EGIN IPUIN HARRIGARRI TRADIZIONAL HAUEKIN?**

Erantzuna ez da erraza. Mende honen hasieran, ipuin harrigarri ezagun hauek arbuiatuak izan ziren haurrentzako traumatikoak zirelakoan. Klasistak, misoginoak eta kaltegarriak direla idatzi du **Hugo Cerdak**, “**Haur literatura eta klase sozialak**” liburuan. Hala ere, gaur egun, eta batez ere psikoanaliaren eraginez, onartuak eta bultzatuak izan dira, beren balio literarioaz ez ezezik beren balio psikologiko eta pedagogikoagatik ere, haurrak autorrealizazioa lortzeko gainditu behar dituen zailtasunak era oso egokian adierazten dituztelako.

**Bruno Bettelheim**-ek “**Maitagarri-ipuinen psikoanalisi**” liburu ezagunean, literatura tradizional hau goraiatu eta defenditu egiten du sutuki... “maitagarrien ipuinak, beraien hizkuntza sinbolikoaren bidez, haurra bere sexuarekin ohituratzeko bide egoki dira, adina eta ulermen-mailari egokituak”.

Felicidad Orquin-ek, berriz, ipuin hauek haurrengan oso eraginkorrak direla dio, oso kaltegarria dela gaur egun horrelako misoginia eta mezu sexistak ematea. Haur literatura tradizional hau berrikusia eta zuzendua izan beharko litzatekeela dio, gizon/emakumezko eredu eta rol patriarkalak iraunerazteko balio duelako.

Adela Turin idazle italiarrak zuzentzen duen “Della parte delle bambine” (Neskatoen alde) argitaletxeko liburuek arazo horri erantzun bat eskeini nahi izan zioten... Lumen argitaletxeak itzuli zituen eta garai batean oso harrera ona izan zuten. Adela Turinek idatzitako maitagarri-ipuinetan, beste balore-sistema eskeintzen da, emakumearen irudi berri bat, ilustrazio zaindu eta

ederrez apaindua gainera. Baina, orain ikusiko dugun bezala, literatura honek tesi-literatura izaten jarraitzen du, kontzientzia hartzeko behar-beharrezkoa, baina ipuin tradizional ezagun horien aurreran eragin gutxikoa.

“Neskatoen alde” saileko liburuak ikustea, aztertzea eta orain arte hitzegindakoaz eztabaidatzea proposatzen dizuet.

**IPUINGINTZA TRADIZIONALA  
NARRATIBA MODERNOAN**  
*(edo Egiak eta Gezurrak idazle baten buruan)*

*Patxi Zubizarreta*



NONBAIT irakurria daukat idazle baten burua ideiez, ipuinez eta istorioez beterik dagoela, dena nahas-mahas, eta kilker-kaiola baten antzekoa dela, iskanbila hutsa, alegia.

Bada nik orain kontatuko dudan istorioa 1984ko udan hasi zen, Sunbillako atautxi edo aitona batek buruan ipuin bat sartu zidanean, buruan eta nire magnetofoi ttikian.

Ipuinak «Egia eta Gezurra» zuen izenburua, eta hitz gutxitan esanik, hara zer kontatu zuen: errege baten alaba oso gaixorik dago; Egia, ustegabeen akelarre batean gertaturik, neskato haren sendabidea zein den ezagutzen du: neskari behin jaunartzean erori zitzaion ogi-puska berreskuratu, hura gorderik duen apoari kendu eta berriro jan; jakina, esan bezala eginda, neskatoa sendatu egiten da, erregea poztu eta Egia aberastu; eta Gezurra akelarre hartara aberastasun bila abiatzen denean, jipoitua eta bizkarra ongi berotua irteten da.

Ipuina, bere moral ukitua eta guzti, arrot erakargarria egin zitzaidan. Eta nahiz harez gero urte-mordoska igaro, joan den urtean primeran etorri zitzaidan narrazio luzeago batean tartekatzeke, *Gutun harrigarri bat* ipuinean, alegia. Gure folkloreak iturritik edan nahi izan nuen gaur egun ere plazer estetiko dastatzeko eta, ahal dela, dastatzera eta ezagutzera emateko.

Narrazio berri batean kokatzeko, ordea, bi osagai aldatu edo egokitu behar izan nituen: batetik hizkuntza, aitonaaren euskara Sunbillakoa izaki, pittin bat moldatu egin behar izan nuen haur-jendeak aisa uler zezan; bestetik, elizako ogiaren eszena gaurko haurrei arrotz antzekoa gertatuko zitzaielakoan, ipuinetan hain



erlijiosoa izan gabe, indar handia duen beste elementu batekin ordezkatu nuen: eraztuna.

Alabaina, hori dena ere ez da egia berdadero horietakoa, izanez ere, kontatzeko modua ere eguneratua eman nahi izan baitut. Bestalde, lagun batek oharkabean ipuinari amaiera damaion esaldia ezagutarazi zidan: «Egia ala gezurra, begi bien artean sudurra.» Bizkaian jasotako ipuin-amaierako formula hau zoragarria iruditu zitzaidan, eta jakina, «Egia eta Gezurra» ipuinerako ezin aproposagoa.

Eta ipuina gaurkoturik, txertaturik eta amaiera horrekin bukaturik 1984ko udan hasitako istorioa amaitzear zegoelarik, Azkueren *Euskalerraren Yakintza* irakurtzen ari nintzela, hara non aurkitu nuen ondoko ipuin hau: «Petalandako batzar bi edo hiru», eta jakina, jarraian esango dudanagatik hau ere buruan geratu zitzaidan.

Zer aurkituko, beraz, eta «Egia eta Gezurra» ipuinaren bertsio bizkaitarra dei dezakeguna. Horretan ez dira Egia eta Gezurra agertzen, ezta apoa ere; baina emakume harro bati ere «ogi bedeinkatu-zatitxoa» erori zitzaion, eta haren sendabidea morroi batek ezagutu zuen, sorginen ahotik hemen ere.

Ipuin hauen alderaketa eginez gero ondorio asko atera daitezke: egitura, paralelismoak, hizkera, zahartasuna bera...; baina eginkizun hori folklorezaleen eta buruargien esku uzten dut, izanez ere nire buruak kilker kaiola bat ematen baitu, eta dena nahas-mahas eta iskanbila baita. Horregatik, eta besterik gabe, nire buruan dauden bi ipuin eskainiko ditut (hirugarrena *Gutun harrigarri bat* hartan dago) denen plazererako eta inork nahiko balu, ondorioren bat edo beste ateratzeko.

## **EGIA ETA GEZURRA**

DENBORA batean, gauaz eta oihan batean, elkarrekin egon omen ziren Egia eta Gezurra. Eta Gezurrak Egiari bidegurutze batera ailegatu zirenean erran omen zion:

-Hi, hoaien hor barna, ni joanen nauk harat, bertze aldera; eta egunen batean berriz harrapatzen badugu, orduan besta bat eginen, antolatuko diagu. Hi mixerablea haiz; ni, berriz, aberatsa nauk.

Egia gaztainadi handi batera joan zen eta han barrenean gelditu zen. Euria ari zuen eta sorginak baino lehenago joan zen gaztain-zulo hartara. Eta handik ordu bat betera hasi ziren sorginak, batak danbor-soinua, bertzeak zurupitak, akordionak, denetikan, ikaragarritzko bestan.

Gero, mundu guztiko berriak ematen zizkieten elkarri. Hura akelarrea zen, gaztainadi hura akelarrea zen. Gero, ondotikan, iii!, aaa!, orain moruak aritzen diren bezala:

-Aizan, zer dun?

-Honelako erregearen alaba eri omen dun, bai, bai!

Bertzeak berriz:

-Ez dun sendatu.

-Ez dun sendatuko ere.

-Bai, nik bazakonat haren erremedioa zein den. Egun batean, elizan «ogi puska» erori zitzaionan eta lurretik ez zinan hartu eta ezta jan ere. Harri baten azpian zegoen apo batek aho-puntan ezin sartu izan zinan, eta apo hura hatsik gabe gelditzen den denboran, erregearen alaba hil eginen dun. Orain, apoaren gainean dagoen losa kendu, eta hari ahotik «ogia» kendu eta berak jaten badu, sendatuko dun.

Egia izaki, aditu zuena, joan zen erregearen etxea.

-Zuk alaba eri omen duzu.

Eta erregeak kontestatu:

-Demonio kazkarra, hiri nork erran dik hori?

-Beno, nahi baduzu sinetsi eta ez baduzu... Nik erran behar dizut alaba sendatzeko ez duzula mediku beharrik. Nahi baduzu nire eskutan utzi, neuk sendatuko dut.

Harek aditu zion hau. Gero behinik behin, erregearen alaba hartu eta ondotikan abiatu zen Egiak eskatutako lau gizon palankadunekin. Ailegatu ziren elizara eta, bazekien zein losa zen.

-Zein tokitan egoten zen neskaxa? Goizue losa hau.

Apoa arront hazia aurkitu zuten. Sorginak erran bezala, ahoan zeukan «puska» hura, eta horiek, apoak, sugeak bezala, madarikatuak dira.

-Ken ezazu ahotikan «ogi-puska» hori.

Eta alabari han gogoratu zitzaion egin zuena; gizon honek erraten zuena egin eta «ogi» hura ahotikan kenduta, jan zuen.

Neskaxa, behar bezala, segituan sendatu zen. Ondotikan eraman zuten etxera eta Egiari nahi adina diru eman zioten. Geroztik kotxerorekin ibiltzen zuten. Aberastu zen, jakina, nahi adina diru eman baitzioten.

Egun batean ailegatu ziren berriz, Egia eta Gezurra. Egiak ezagutu Gezurra eta...

-Kaixo, Gezurra, zer diagu?

-Hi nor haiz?

-Ni, Egia! Hik bidali nindukan gaztainadi-zoko batera, eta gaztain-zulo batean egin nian gaua. Denbora txarra suertatu, eta honela eta honela...

-Nik ere joan behar diat zulo hartara.

-Bai, hoaie nahi baldin baduk.

Gezurra jarri zen zelatan, aditzen. Berriz ere danbor, hitzak, zurupitak, iii!, eee!

-Aizan!

-Zer dun?

-Honelako erregearen alaba, lehengo aldian guk

konbertsazioan erran genuen bezala, sendatu dun. Bakarren bat bazegonan gaztainondo honetan, zelatan zegoena. Gaur bilatu behar dinagu ondoz ondo. Harrapatzen badinagu, porrokatu behar dinagu, xehetu.

Behinik behin, hasi omen ziren miatzen eta Gezurra aurkitu zuten Egia egon zen toki berean, eta Gezurra mixeritan paratu, xehetu.

Eta ondotikan Egia eta Gezurra elkartu ziren, bat ezin mugituz:

-Hik errana aldrebes atera zaidak.

(Mariano Ibarra sunbildarrak 1984ko abuztuan kontatua eta 1985eko ekainean *Ttipi-Ttapa* aldizkarian argitaratua)

### ***PETRALANDAKO BATZAR BI EDO HIRU***

BIZKAIKO Akelarre da Petralanda. Arratian, Dimako lurrean, datza sorgintegi hau. Bere inguruko erritxo baten (Diman? Igorren? Arantzazun?) dama aberats bat bizi zan, buru-eritxia, arroa. Beste eliza askotan oi dana, egiten zan erritxo atako elizan bere: meza nagosi-bitartean otondo bedeinkatuak eliztarren artean banatu. Aberats oni bere emoten eutsan sakristauak ogi bedeinkatu-zatitxoa. Bein eskutik jausi jakon eta arrokeriaren arrokeriz makurtu nai ez ta bertan itxi eban bere otondotxoa. Ganeko egunetan geroago ta mekoago, makalago, osasun bakoago egoan bera, bere gatxa nondikoa ta zelakoa zan inok ezekiala.

Urte aretan Petralandara zapatu gabetan inguruetako sorgin guztiak yokeraa artuta euken. Euren arteko batek morroitzat mutiko bizkor jakingura bat eukan ¿ta etxakon ba behin, ugazabandarearen isilik, sorgin batzarrera yoateko gogoia biotzean sartu? Gaberdia baino asko lenago eldu zan bertara. Aritz tantai batera igonda, an egoan mutila, batzarra noz asiko. Gaberdi

inguruan, bat orti, bestea andi, batu ziraan sorginok. Batzar atan, beste zerbaitez ganera, andra aberats arro burueritxiak azken domekan eginiko arrokeria aitatu eben. Sorgin batek orduan esan ebana ondo artu eban burutan aritz tantai ganean egoan entzuleak:

-Arro putz ori ezta osatuko, otondoa egon zan lekua miiñaz igortzi eztagian artean.

Batzarra amaitu ta bakotxa bere etxera banatu ta zabaldu-ondoan, mutila bere aritz-ganetik yatsi ta beingo baten ugazabandrea baino lentxoago etxeratu zan. Biaramonean dama aberatsarenean atea yota, isileko mandatu bat eukala ta, barrura sartu ebenean, etxeko andreari bere gatx andi aren barri emon eutsan.

Egunik galdu barik elizara yoan, bere etxekoen sepulturara urreratu ta apal-apal makurtuaz ogi bedeinkatua egon zan unetxo miiñaz al ebanik ondoen igortzi eban. Damaak elizatik urtena etzirudian lengoa. Sendo ta bizkor yoean bere lekura.

Urrengo zapatuan Petralandako batzarrean auxe zan aotan geien erabili ebena: aberats arroaren uste bagako sendatutea. Sorgin batek esan eta beste askok aintzat artu eben bere susmoa: azken-batzarrean salatariren batek an yazo zana entzun eta dameari osapidea erakutsi izango eutsala. Bestela arek bere burua ezin osatu zeikean.

Zokondo ta baztar ta sasipe guztiak aratu zituen sorgin batzuen artean: ta inor agiri ez. Alako baten gora begira ebilen sorgin batek:

-Aiko an, aiko an -esan eban.


An egoan, izan bere, gure mutil salataria. ¡Areri emon eutsezan emotekoak! Zorionen baten otu jakon gizagaixoari sorginen kontrako barbarik indartsuena esatea: «Jesus.»

Au entzunda, bakar-bakarrik itxi eben mutila Petralandan.

(Gorozikako Antonia Zugazaga)

***TXANOGORRITXUK OTSOA HIL ZUENEOA***  
*edo euskal haur literaturaren hamar “p”*

*Xabier Etxaniz*



Hitzaldiarekin hasi aurretik “p” bat gastatuko dut, PARRANDA hitzari dagokion “p”a hain zuzen. Izan ere parranda baten ondorioz jarri genion izenburu hau hitzaldi honi; eta genion diot, errua edo balioa ez dagokidalako niri bakarrik. Eta izenburu horretatik abiatuz etorri zaigu azpizenburua: Perrault, Psikologia eta antzeko “P”ak erabiliz. Beraz, gehiago luzatu gabe hitzaldiari ekingo diogu.

Eta lehenengo “P”a **PERRAULT** izango da.

Charles Perrault idazle ezaguna da, XVII. mendearen bukaeran kaleratu zituen bere ipuinak (1697); gaur egun denok ezagutzen ditugun Txanogorritxu, Bizar urdin, Loti ederra, eta abar. Perrault idazle klasikoa izanik oraindik ez dago euskaraz, ez behintzat bere obra osoa. Laster egongo da eta edizio zainduan gainera. Baina Perrault euskaraz 1993an lehenengo aldiz egoteak gure literaturaren hutsuneak azaltzen dizkigu. Gure haur literatura oso oso berria da, lehen liburua XIX. mendean plazaratu zen, eta arrazoi ezberdinengatik, duela 25 urte arte ez da ia ia ezer egin literatur arlo honetan. Perraultek erakusten digu Andersen en edizio zaindurik ez dugula, *Mila gau eta gau bat gehiago* erdaraz irakurri behar ditugula, Grimm anaien ipuin batzuk besterik ez daudela euskaraz, Robinson Crusoe k oraindik ez duela euskaraz egiten, edo Jules Verne, Stevenson, Mark Twain, eta antzeko idazle ezagunen lan asko eta asko euskaratzeko daudela oraindik ere.

Perraultek euskal haur literaturaren gaztetasuna erakusten digu, baina era berean idazlan klasikoak, apur apurka, euskal liburugintzan leku bat hartzen ari direla. Inork ez du esaten arlo

hau burututa dagoenik, ezta gauza guztiak ongi egiten ari direnik, baina bidean gaude, eta handia da egiteko dagoen lana, Pippi Mediaslargas euskaratu, esaterako.

Eta honela bigarren “P”a erabili dut. **PIPI MEDIASLARGAS.**

Pippi kontsideratzen da haur literatura modernoaren aintzindaria. Astrid Lindgren idazle suediarren lan honek errealismo eta fantasia umoretsua nahasten ditu kritika zorrotzak eginez. Idazlan hau, bigarren gerratearen ondoren kokatzen da, krisialdi latzean, Europa berreraikitzen ari den une batean. Ingurugiro horretan sortzen da Pippi, pedagogo eta adituen kritikak jasotzen dituen lana, eta era beren haurren ongi etorri beroa izan duena.

Pippik errealitatea eta fantasia nahasiz, aurrerapauso handia eman zuen. Pertsonaia nagusia haur bat da, eta irakurlea erraz identifikatzen da berarekin; alde horretatik, Pippik seguritatea ematen dio haur irakurleari. Hori dela eta, haur literatura modernoaren aintzidaria kontsideratzen da lan hau.

Astrid Lindgrenek bere alaba gaisoari kontatutako ipuin hau mundu osoan egin da ezagun, eta arrakasta horren beste arrazoi bat, arrazoi garrantzitsu bat, haur-munduaren psikologi ezagutza da, egileak ezagutu egiten zuela haur-psikologia.

Eta horrela iritsi da hirugarren “P”a: **PSIKOLOGIA.**

“Kalean dagoen auto zahar abandonatu batean sartu gara jolastera.

Pellok eta beste mutilek esan dute indioetara jolastuko garela eta auto zahar hura dilijentzia bat izango zela.



Neskak dilijentzian sartzeko eta beraiek atakatuko gintuztela...

—Eta gero, zer?

—Zuek indioak ikusi eta desmaiatu egin behar duzue.

Eta guk horrela egin dugu.

Gero, nik esan dut alderantziz egiteko, eta Pellok esan du ezetz. Beraiek ez zirela desmaiatzen. Eta neskak haserretu gara indioena egin nahi genuelako eta beraiei tokatzen zitzaielako dilijentziakoak izatea.

Azkenean onartu dute, baina autoa inguratu dugunean, atea zabaldu eta tiroka hasi dira. Inor ez da desmaiatu, eta gu berriro haserretu gara.

Mutilekin ez dago jolasterik.”

Hauxe duzue *Iholdi* liburuko pasarte bat, Mariasun Landak idatzia.

Mariasun Landa izan daiteke gure artean, haur literatura barnerakoi honen adierazgarri argiena. Bere lan ia guztiak haurraren izatearen erreflexio baten ondorengo lanak dira. *Txan fantasma* liburuan bakardadeaz hitzegingo digu, *Alexen* berriz, bazterturik sentitzen diren hurrei buruz, *Maria eta aterkia* liburuan, maitasunez.... *Aitonaren txalupan* aldiz, heriotzaz.

Espazio honetan ere kokatuko genuke Txilikuren *Katixa eta Kroko*, neskabila baten asmakizun psikologikoak-eta lantzen dituen liburua.

Haurraren barne-arazoak ikutzen dira liburu hauetan; Tormod Haugen-en *Gautxoriak* liburuan Jakeren beldurrez, etxean dituen arazoei buruz... hitzegiten zaigu. Eta antzeko zerbait esan daiteke Frederik Hetmann-en *Futboleko botak* liburuaz, suizidioa, borroka, ikaraz... ari baitzaigu egilea.

Psikologiatik oso hurbil dugu gure laugarren “P”a: **PETER HÄRTLING**.

Peter Härtling idazle alemaniarraren liburuetan haurren ikuspuntua kontutan harturik, beren psikologia ezagutuz, errealitatean, gizartean dauden hainbat arazo planteatzen dira. *Benek Anna maite du* liburuan lehenengo maitasunez mintzo da, *Txirbelen* aldiz, baztertutakoei buruz,...

Errealismo, gizarte-isladatze hori, haur eta gazte-literaturan berria izanda ere asko eboluzionatu da azken urteotan.

Alde batetik errealismo soziala dugu, gordina, arazoak diren bezala planteatzen dituen, Peter Härtlingena, esaterako. Amonaren bakardadea, gurasoen banaketak,.. aurreko ataleko psikologi arlotik oso hurbil dagoena, eta mundu mailan azken garai honetan Alemaniatik etorritako jarrera ezaguna. Honela esplika daiteke Elkar argitaletxeko Itzul sailean, 29 liburu alemaneratik euskaratuak izatea eta beste 57ak gainerako hizkuntzetatik.

Beste aldetik errealitatearen ikuspegi umoretsuagoa dugu, antzeko arazoak ikutzen dituen jarrera baina umorea erabiliz. Christina Nöstlinger idazle austriarra izango genuke honen adibide garbiena. Bere lanetan gurasoen arteko banaketak, emakumeak lanean hasten direnean sortutako arazoak, edo ama izan nahi ez eta paketez haur bat jasotzen duen emakumearen papeleta. *Ingeles bat etxean* bere liburuan, ikasle trukaketa batean ustegabea sortu eta inork espero ez duen anaia errebeldea etortzean sortzen den egoera isladatzen da. Egileak egoerak muturretaraino eramaten ditu, umore kutsua mantentzen du liburu guztian zehar, eta errealitate gordinari muzin egin gabe,

elementu fantastikoak eta umorea erabiliko ditu. *Amona maite, zure Susik* liburuan berriz, iloba eta amonaren arteko harremana ikus dezakegu.

Baina errealismoan bada hirugarren jarrera bat, batik bat fantasian oinarritzen den jarrera. Gianni Rodarik *Tarta hegalaria* liburuan erabiltzen duena, esaterako. Gizakion jarrera ulergaitza eta itxiak, indarren bidez konpondu nahiak, haurren logika garbi eta inozentearekin egiten dute topo. Rodarik gizarteari buruzko erreflexioa egiten du, gaur egungo gizarteaz, baina fantasiaz baliatzen da erreflexio horretarako.

Eta gaurko gizarteaz eta gertakizunei buruz hitzegiteko **PERIODIKO**ra jo dezakegu, gaurko bostgarren “P”a erabiliz.

Periodikoa literaturan erabilgarria izan da, ez bakarrik ezagutarazteko edo debaterako leku bezala; bertako albiste eta oharrek ere sarri erabili dira haur eta gazte literaturan.

Esaterako oraintsu argitaratu den *Iragarki-ipuinak*, gailegoz idatzia jatorriz eta orain euskaraz eskaintzen zaigun liburu honek egunkarietako iragarki motzak hartu ditu abiapuntutzat.

Eta egunkari, telebista, irrati eta gainerako komunikabideetan ikututako gaiak landu ditu Xabier Mendigurenek *Harrika* (Birmoldaketa industrialak eta langabeziaren gaia ikutuz) edo *Joxeme gerrara daramate* (Golkoko gerra) liburuetan. Errealismo sozial gordinena izango genuke lehenengoa, eta apur bat, apurtxo bat bakarrik, fantastikoagoa bigarrena.

Euskaraz gutxi dira errealismo soziala lantzen duten idazleak, Koldo Izagirrearen *Metxa esaten dioten agirretar baten ibili*

*herrenak* liburuan ere badira honelako ikutuak, eta Manu Lopezen *Borroka arrokan* Bizkaiko hiri industrialen giroa isladatzen zaigu.

Euskaraz sortutako lan gehienak berriz, fantasiakoak dira, herri-girokoak edo umoretsuak. Behar bada zaila gertatzen delako gure gizartean gai batzutat hotzean erreflexionatzea, edo ezezaguna zaigulako umeen mundua. Baina onartu behar da, gaur egun, errealismoa, kritika soziala, gai ekologistak, pakezaleak, kanpotik etortzen zaizkigula.

**PAUSEWANG** idazle alemaniarraren *Hodeia* liburua bezala. Eta honekin nire seigarren “P”a erabili dut.

Gudun PAUSEWANGen *Hodeia* liburuak hondamendi nuklear baten inguruko egoera azaltzen digu. Ihesaldia, desinformazioa, borrokak, kalte konponezina... liburua benetan hunkigarria, eta oso egokia gazteentzat. Izan ere liburu hau gazte-literaturan kokatu beharko dugu.

Euskarazko haur literatura nahiko fenomeno berria dela esan dugu aurrerago, eta gazte literaturaz zerbait esatekotan, azken urte hauetakoa dela esan beharko dugu. Bertako produkzioan Anjel Lertxundi, Arantxa Urretabizkaia, Aitor Arana, Koldo Izagirre, Manu Lopez, Atxaga... aipatu beharko genituzke. Erdarazkoen artean berriz, ugari dira gazte jendearentzat idazten duten idazleak, eta “P”ekin jarraituz, Poe (*Urre-zomorroa*), Pam Lyons (*Mutil arteko neska*) edo Plante (*Azken babalorea*), ditugu azken bi urteotan euskaraturik.

Gazte-literatura duela gutxi arte, gure asignatura pendiente horietako bat zen, baina azken urte hauetan ikaragarritzko lana

egin da arlo honetan, eta gaur egun, eskaintza nahiko zabala dago.

Eta gazte-literaturan **PIRATAK** dauzkagu, gure zazpigarren “P”a eramanez.

PIRATAK, haur, eta batez ere gazte-literaturako pertsonaia klasikoak –eta ez hain klasikoak– ditugu. Euskaraz ere, badugu hauetaz gozatzeko aukera. Izan ere R.L.Stevensonen *Altxor uhartea* dugu pirata-libururik ezagunena. Baina era berean, *Altxor uhartea* honek, liburuak nola ez den egin behar azaltzeko parada ematen digu. Eusko Jaurlearitzaren dirulaguntzaz, eta Itzultzaile Elkartearen itzulpen-ardurapean, liburua euskaratu, ongi euskaratu, ondoren bat ere erakargarri ez den produktu bat plazaratu da. Gazte-jendearentzat astuna den produktua kaleratu da, hizki txikiak, ilustraziorik ez, orriak goitik behera idatzirik. Hau ez da gauzak egiteko modua! Eta penagarria da, izan ere itzulpena ona da eta liburua zoragarria.

Baina Stevensonez gain, badago euskal piratarik. Aitor Aranaren *Afrikako semea* irakurri besterik ez duzue. Edo gaur egungo pirata berriak, zientzi fikzioan agertzen direnak, Joanes Urkixoren *Shangai Tom espazioko zaindaria* liburu kaleratu berrian. Saio baliagarriak biak, bata bide klasikotik, abenturazko liburuen ildotik; berrikuntza eta teknikologiatik abiatu da bestea, baina biak entretenigarriak eta abenturaren bidea irekitzen euskal gazte-literaturan.

Eta ireki behar den beste bide bat **POESIA**rena da, zortzigarren “P”a daraman POESIA.

Harrigarria badirudi ere, euskaraz, hainbeste poesi liburu argitaratu diren euskara honetan, aurten kaleratu dira lehen haur poesi liburuak azken hamar urteotan.

Badira prosa poetikoa duten liburuak, Patxi Zubizarretaren *Ametsetako mutila*, Gasteiz honetan kokaturiko ipuin zoragarria, esaterako. Edo Pello Añorgaren *Lientzo Txuria*. Baina lehenago esan bezala, 1992 urte honetara arte itxaron behar izan dugu poesi liburuak izateko haur literaturan.

Arrazoi nagusia beste “P” batean egon daiteke, PEDAGOGIAN, literaturaren erabilpen didaktikoan, prosa soilik erabiltzea, literatura ikasteko elementu bat gehiago bezala kontsideratzea. Eta tamalgarria da horrela izana –horregatik izan baldin bada–, baina bestalde, pozgarria pauso hori gaindituta egotea.

Badirudi argialetxeetan gauzak aldatu egin direla.

Eta argialetxeetaz hitzegitean **PAMIELA** argialetxeak kendu digu azken aurreko “P”a.

PAMIELA dugu euskal argialetxe gazteena. Edo hobeto esanda, euskaraz sortutako haur eta gazte literatura kaleratzen duen hemengo argialetxe gazteena.

1980 inguruan sortu ziren ELKAR eta EREIN eta aurretik zegoen MENSAJERO argialetxearekin batera 80ko hamarkadako lehen urteotan euskal haur eta gazte literatura eraikitzeari ekin zioten.

EREIN eta ELKAR haur eta gazte literaturari heldu zioten lehenengo urteetan, testugintzarekin batera horretan ihardun

zuten lehen bost urteetan. Ondoren, helduen literatura eta gainerako generoak lantzeaz gain, gure haur eta gazte literatura oraingo egoerara ekarri dute.

PAMIELA, aldiz, 86an hasi zen haur eta gazte literatur lanak kaleratzen eta, astiro baina kalitatea zainduz, bide horretik jarraitu du.

Baina argialetxeen munduan oso fenomeno bitxia gertatu da euskal literaturan, izan ere kanpoko argialetxeak hasi dira posizioak hartzen esparru honetan eta gaur egun ANAYA, ALFAGUARA, SUSAETA, EDELVIVES, BRUÑO, S.M., eta abar ditugu euskal merkatuan.

Eta honela, bertako eta kanpoko argialetxeen artean, azkenengo “P”a iritsi zaigu, **PRODUKZIOA KANPOAN** edo izango litzatekeena, euskal idazleen produkzioa kanpoan, itzulpenak erdarara. Arlo honetan, batik bat bi izen azaldu behar dira: Mariasun Landa eta Atxaga. ATXAGAk 1980ean kaleratu zituen *Nikolasaren abenturak eta kalenturak* eta *Ramuntxo detektibea*. Harrez gero asko dira Atxagaren idazlanak haur eta gazte-literatura arlo honetan eta horietatik asko erdaratu direnak, azkena *Flanery eta bere astakiloak* aurtengo azaroan. Atxagaren Chuck Aranberritik abiatuta, Mariasun Landaren Errusikaraino, katalana, gailegoa, gaztelera, grekera, albaniera.. kanpoan zertxobait erakusten ari gara. Gutxi, egia esan, baina hor bada zerbait, hemen kalitatezko lanak baititugu eta euskaratzen ari garenen parekoak gutxienez bai.

Behar bada erdaratzeko lagunak edo plangintza bat beharko genuke. Baina PLAGINTZAREN “P”a ez dago hemen sartzerik, ez PROPAGANDA edo PRODUKZIOAREN AZTERKETA-rena.

Ahaztu ere, ez zaikigu ahaztu hainbeste “P”, hortik ari diren “P”ak PELLO AÑORGA, PELLO ESNAL, PASCUAL ITURRIAGA, PAKO ARISTI, PROXPERO, PATXI ZUBIZARRETA, eta abar, eta abar. Baina hemen amaitzen da hitzaldi hau entzuleen PENA edo POZERAKO, hauek ere “P”.